

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Jose Angel Petralanda Gil  
Igo Ezpeleta Oregi  
Aitor Urrutia Oianguren  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
María Rosario Arcauz Arcauz  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria.                  Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko maiatzaren 28an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 28 de mayo de 2013 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día .

## **1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 203-02-26 eta 2013-03-26.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

Alkateak berariaz jakinarazi ditu 9. eta 10. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko erabakiak. Hona hemen horien egoera-orria:

### **9. ESPEDIENTEA**

PARTIDA	IZENA			
04 06 481 452 80 01	DIRU LA EUSKAI			
04 06 481 452 90 01	DIRU LA			

## **KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

Sarreren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
0201.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina:kreditu gehigarriak.		13.054,13 €
<i>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</i>			<b>13.054,13 €</b>

Eskoriatzan, 2013ko maiatzaren 21ean.

### **10. ESPEDIENTEA**

## **KREDITU TRANSFERENTZIA PROPOSAMENA**

**Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (bajak)**

		Hasierako		Amaierako
--	--	-----------	--	-----------

<b>Partida</b>	<b>Izena</b>	<b>kreditua</b>	<b>Gutxipena</b>	<b>kreditua</b>
0401.481.451.10.01	Diru laguntza:kultura.	4.750,00	1.000,00	3.750,00
	<b>GUZTIRA ...</b>	4.750,00	1.000,00	3.750,00

**Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)**

<b>Partida (*)</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
0401.227.451.91.29	Aizorrotz kultur elkartea:Errekan gora.	7.000,00	1.000,00	8.000,00
	<b>GUZTIRA ...</b>	7.000,00	1.000,00	8.000,00

\* Aurrekontu-partida berriak sortu ahal izango dira

Ondorengo erabakien berri ere eman du:

**ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** 480

**DATA:** 2013-04-24

**GAIA:** ERREKURTSOAN AGERTZEA

**ESPEDIENTEA:**

**INTERESDUNA:**

Javier Errasti Uriarte jaunak eta Bernabe Errasti Ibarzabal jaunak administrazioarekiko auzi errekursoa jarri dute Udalbatzarrak 2012ko abenduaren 20an hartutako erabakiaren aurka.

Administrazioarekiko auzian errekurritutako erabakiak ez zuen onartzen 2012ko urriaren 30ean Udalbatzarrak hartutako erabakiaren aurka Francisco Javier Errasti jaunak jarritako berrazterte errekursoa.

2012ko urriaren 30eko erabakiak ez zuen onartzen Bernabe Errasti jaunaren jabetzaren aurretik Mazmelarako errepideraino doan Tejeriarako bide zatiaren erabilera publikoa zehazteko ikerketa espidente bat irekitza.

AAJLko 48. eta 49. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, Alkate naizen honek honako hau

**ERABAKI DUT**

1.- Espediente osoaren kopia eskuetsa bidaltzea Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 2. epaitegira.

2.- Aipatutako Administrazioarekiko Auzi-Eerrekurtoan agertzea BEATRIZ LIZAUR SUQUIA prokuradore andrearen bitarbez eta **JUAN RAMON UGALDE EGAÑA** letratu jaunaren zuzendaritzapean.

Eskoriatzan, 2013ko apirilaren 24an.

ALKATEA

### **3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Hazienda Batzorde informatzailearen diktamenik ez dagoenez, eta Urrutia jaunak aurka bozkatuta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde, Udalbatzarrak ondorengo gai hauek gai zerrendan sartea berretsi du:

**KREDITUAK ALDATZEKO 11. ESPEDIENTEA: kreditu gehigarriak.**

Urrutia jaunak bere btoa justifikatzeko beste bilkura batean esandakoa esan du berriz ere, hau da, batzordetatik pasa gabe gai garrantzitsuak ekartzen direla osoko bilkurara.

Alkateak jakinarazi dio gaia batzordean aztertu zela, eta bertan justifikatu zirela arrazoia, eta diktamenik ez egotearen arrazoia dela batzorde horretan, informazioa falta zelako, ondo zehaztu gabe gelditu zirela partida bakoitzean kontsignatu beharreko kopuruak.

### **4.- KREDITUAK ALDATZEKO 11. ESPEDIENTEA: kreditu gehigarriak.**

Kredituak aldatzeko 11. expedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostenetan irakurri da, non adierazten baitu aipatutako expedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostenetan ikusita, bototara jarri da proposamena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.- UDAL** honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 11. expedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
0405.601.456.80.01	Hiri altzariak: Torrebaso parkea.	0,00	17.000,00	17.000,00
0102.200.511.00.01	Alkilerra: Santa Marinako aparkalekuak.	0,00	6.481,01	6.481,01
0101.601.511.00.01	Arana-Gaztañadui mugizerbitzuen hobekuntza.	159.000,00	247.000,00	406.000,00
0103.601.531.00.06	Inbertsioak:Elizateak.	0,00	45.000,00	45.000,00
<b>GUZTIRA ...</b>		<b>159.000,00,</b> -	<b>315.481,01</b>	<b>474.481,01</b>

Sarreren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
---	-------------------------------	---------------------------------------	-------------------------

2.0201.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina: kreditu gehigarriak	0,00	315.481,01
<b>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		0,00	<b>315.481,01</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez balego, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzoko tramite berak egin beharko zaizkio.

Bozketa egin aurretik, eta Merino jaunak aldez aurretik galdetuta, “elizateetako inbertsioak” partidan aurreikusitako kredituarekin egin gura diren jardueren berri eman da, hain zuzen ere, honako hauek: Gorosarrirako bidea, Gellaoko baserri gehienetarako bideak asfaltatzea, Bolibarko bideak asfaltatzea, eta elizate bakoitzean suteen aurkako 2 armairu jartzea.

#### **5.- GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO 2013KO LANKIDETZA PROGRAMA ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA.**

Udalatzarkide guztiak ezagutzen dituzte Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak, onartu daitezen, proposatzen dituen oinarriak.

Merino jaunak adierazi du gutxi iruditzen zaiola helburu horretarako jarritako dirua, oso urru dagoela % 0,7tik.

Gizarte Zerbitzuetako arloko ardura duen zinegotziak, Iregui andreak, zein Alkateak erantzun diote laguntza horietarako inolako krediturik eman ezinda urte batzuk igaro ondoren, aurten 5.000 euroko partida bat gordetzea lortu dela, eta gobernu taldearen asmoa dela urtero partida hori igotzea, Udalaren egoera ekonomikoak horrela ahalbidetzen badu, eta guztion nahia dela % 0,7 hori lortzea.

Bukatu da eztabaidea, eta gaia bozkatu egin da. Aho batez Udalatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.- GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO 2013KO LANKIDETZA PROGRAMA ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK onartzea.**

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunek edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena:** Alkate jaunari ahalmena ematea oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzearako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

#### **6.- LARRIRALDIETARAKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA.**

Udalatzarkide guztiak ezagutzen dituzte Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak, onartu daitezen, proposatzen dituen oinarriak.

Herrian sortu daitezkeen behar guztiei erantzongo zaiela bermatzeko konpromisoa hartza eskatu du Merino jaunak, eta horretarako, beharrezko kredituak kontsignatzea, kreditu aldaketa espediente bidez egin daitekeena, horrela behar izanez gero.

Arantza Iregui andreak erantzun dio benetako beharra zein den jakin arte ezin dela hartu berme konpromiso hori, ezin baita jakin ere Udalaren baliabide ekonomikoak behar bestekoak izango diren.

Alkateak esan du saiatuko direla.

Bukatu da eztabaida, eta gaia bozkatu da. Aho batez Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa**.- LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK onartzea.

**Bigarrena**.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena**.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena**: Alkate jaunari ahalmena ematea oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzearako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

## **7.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGOAREN ARTEKO HITZARMENARI ATXIKITZEA.**

Hitza eman ondoren, Iregui andreak jakinarazi du batzordearen proposamena hitzarmenera atxikitzea dela, gai hori batzorde batean aztertu zela eta bertara gonbidatuta egon zirela KALERATZEAK STOP platformako ordezkariak, eta berez ustez, hitzarmen horretara atxikitzea aurrera pausua da. Gehitu du badakiela zenbait gauza hobetu beharko direla: batzuk, ez daudelako aurreikusita; eta beste bazuk, kendu behar direlako, baina, berriz dio hitzarmenera atxikitzea proposatzen dela, aurrera egiteko modua baita.

Cantero jauna: guk hitzarmenera atxikitzearen aurka bozkatuko dugu. Hasiera batean, guk ez dugu inolako eragozpenik Aldundiaren eta Abokatuen Elkargoaren artean elkarlanerako formulak ezartzeari, eta ezta gai hori dela-eta mobilizatu diren plataformen artean ere. Baina, uste dugu hitzarmena presaka egin dela, eta gaizki egin dela. Uste dugu presaka egin dela, lehendabizi, plataformek gai horretan zuten protagonismotik kendu nahi izan dituztelako. Udal honek plataformarekin hitz egin zuen eta jarduera protokolo bat egiteko gelditu zen, eta azkenean, gaia desbideratu egin da Aldundiaren eta Abokatuen Elkargoaren artean hitzarmen bat azertzen ari zirelako. Guri, talde bezala, ez zitzaizkigun jakinarazi sinatu beharreko hitzarmen horren baldintzak. Plataformakoekin ere ez da konsultatu, hau da, ez da iradokizun eperik jarri plataformakoentzat, beraiek izanda mobilizatu direnak. Horretaz gain, uste dugu hitzarmena egiteko prozesua hobetu daitekeela. Eta, hemen bertan esan zaigu hobetu daitekeela: zerbait falta bazaio gehitu daitekeela, kendu behar bada, kendu egiten dela; guk uste dugu zerbait landuagoa ekarri behar dela. Uste dugu aztertu behar dena ondo aztertu behar dela, eta hona ekarri behar bada, baldintza onetan ekarri behar dela. Gainera, hitzarmenak jartzen du espedienteen tramitazioa udal langileek egin behar dutela, eta horrek lan karga handiagoa ekarriko die udal langileei. Eta ez dakit Aldundiak zenbateko konpentsazio ekonomikoa eman behar duen, ezarritako lagunten ekonomiko bakarra Abokatuen Elkargoarentzakoa baita. Esaten da ere, Abokatuen Elkargoak peritu ekonomista forentse baten edo higiezinen jabetzako agente baten beharra duenean Ekonomilarien Elkargoari eskatuko diola. Abokatuak eskatutakoan, peritajea egin behar

duenak nork ordaindu behar dion jakin gurako du. Nork ordainduko du ez bada hitzarmenik egin Ekonomilarien Elkargoarekin? Udalak ordainduko du? Argi dago Aldundiak ez duela ordainduko, Abokatuen Elkargoa beste gremio bat da. Arazo bat egongo da profesional horiei ordainsaria ordaintzeko orduan. Bestalde, esaten da abokatuak emango duela aholkularitza juridikoa, ez da epaiketa bideaz hitz egiten, ez dakigu ere abokatuen ahalmenen artean egon behar den banketxekin negoziatzea. Gainera, aipatzen diren baldintzen artean “fede ona” dago. Ez dakigu nola interpretatuko den, “fede ona” terminoa interpretagarria baita zuzenbidean. Horretaz gain, hitzarmenaren indarraldia urte amaiera artekoa izango dela jartzen da. Etxebizitza arazoaz ari gara, urte honetan, eta zoritzarrez, datozen urtetan ere konponduko ez den gai batez. Horregatik, epea oso motza iruditzen zaigu, eta uste dugu hainbat urtetarako izan beharko litzatekeela. Gauza guzti horiek lotzen ez diren bitartean, ezin diogu gure oniritzia eman hitzarmen honi, eta uste dugu kontu horiek zehaztu behar direla, eta harreman handiagoa izan behar dela plataformekin. Ezezko bozkatuko dugu, ez hitzarmen formulari ezeztz esatearren, baizik eta uste dugulako negoziatzen jarraitu behar dela (bere txanda amaitzeko kritikatu egin ditu hitzarmenean aurreikusitako epeak, eta betetzeko oso zailak izango direla esan du).

Iregui andreak berriz esan du bere ustez aurrerapausoak eman behar direla, eta hau aurrerapauso bat dela. Uste du gauza batzuk lotzeka baldin bidaude ere, abiatzea beharrezko dela. Gizarte langileentzat lan gehiago izateari buruz, esan du kontuan izan behar dela beraiek direla kasu bakotzeko arazoak eta egoera hobeto ezagutzen dutenak.

Alkateak esan du hobe dela hau izatea ezer ez izatea baino; egon daitezkeela hobetu beharreko gauzak, eta ekarpenak egin daitezkeela gizarte zerbitzuetako arlotik. Gizarte langileentzat lan gehiago izateari buruz; beraien iritziz, gaiak eskaini beharreko ahaleginak eskaintzeko besteko garantzia du.

Cantero jaunak erantzun du noski ezer baino hobe dela, kontua ez dela eragozpenak jartzea, beraiek ez dela nahikoa esaten dutela, badirela aurreikusita ez dauden kontu mordo bat eta horiek ere kontuan hartu beharko liratekeela.

Merino jauna: guk hitzarmenaren alde bozkatuko dugu, nahiz eta erren dagoela iruditu (dituen gabezieta batzuk aipatu ditu). Ezer baino hobe da. Uste dugu udalekin eta eskualdeko plataformekin egindako hitzarmenak nahiko ondo egongo liratekeela konfiantzaz eta dinamismo handiagoarekin lan egiteko. Arazo horri buruz dagoen arazo psikologikoari buruz, Aldundiak proposamen bat egiteko eskatu digu Debagoineneko plataformari; plataformen lanari esker, Aldundiak Dokumentatutako Ekintza Juridikoei buruzko zerga berraztertu behar du (eta esan du aipatu dituen adibideak plataformak aktiboak direla erakusteko direla bakarrik, eta hitzarmen hau, hein handi batean, plataforma horien eguneroko borrokari esker dela).

Iregui andreak jakinarazi du aldundian izandako bilera batean Abokatuen Elkargoko ordezkariek esan zuela proiektu hau egiten gaiarekiko sensibilitate handia duten abokatuek parte hartu zutela, eta berriz ere gaiarekin aurrera egiteko proposamena aipatu du.

Alkatea ere hitzarmenean aurreikusitako protokoloaren arabera lanean hastearren alde agertu da, nahiz eta esan, hobetu daitekeen arren, ezer baino hobea dela.

Urrutia jauna: uste dut hemen denok dakigula gizarte drama baten aurrean gaudela, eta horrela ikusi zen plataforma Udalbatzarraren aurrean agertu zenean. Errealitatea da gai honi buruz egiten ari diren gizarte lanarengatik, gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari diren plataformak sortzen ari direla. Plataforma hauek, gehien bat, legezko aholkularitza eta aholkularitza psikologikoa eskatzen ari dira, feder onez egindako beraien lan esparruan bertako kideak ikusten ari direlako gabeziak dituztela arlo horietan. Orain, Aldundiaren eta Abokatuen Elkargoaren arteko hitzarmen hau daukagu. Ados nago hori ezer baino hobe dela, baina, hala ere, hori eguzkiari topa egitea besterik ez da. Zehaztasun falta duen hitzarmena da, plataformako kideek beraiek parte hartu zuten batzordean agerian jarri zuten zehaztasun eza, nabari gelditu zena ere Udaleko gizarte

langile batek aitortu zuenean ez zuela jakingo ze baremo aplikatu. Zehaztasun faltaz gain, handinahi gutxikoa ere, bertan jasotzen diren zerbitzuetako asko ematen direlako, doaneko justiziarena, esateko. Orduan, gogoeta egin beharko litzateke, zergatik ez dira abokatuak plataformen zerbitzura jartzen? Uste dut horren arrazoia izan daitekeela plataformek traba egin diezaieketelako batzuei propaganda politikoaren aldetik. Ikusten da hitzarmena egiterakoan ez direla plataformak kontuan izan, eta hitzarmenean aurreikusten den batzordean, totum revolutum bat eginez, gizarte zibiletik sortutako plataformen protagonismoa desegin gura da. Berriz esango dut, askorentzat ez dela beraien gustuko plataformen protagonismoa, batez ere, ez dituztelako kontrolatzen. Eta hori izan daiteke Gipuzkoaren kasua. Badirudi plataformek zarata ateratzea gura dela hemen, batzuek beraien bulegoetatik pankartetara jaisteko. Arreta deitu didan beste kontu bat da atxikitzeo arrazoia da, zergatik atxikitu behar gara? Ez gaitu lotzen gipuzkoar guztioi Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutakoak? Atxikimendua beharrezkoa da? Ez bagara atxikitzen eta eskoriatzar batek horrelako zoritzarren bat badu, ez zaizkio zerbitzu horiek eman behar? Niri, horrek guztiorek, pentsarazten dit propaganda arrazoiak daudela edo eskumen arazoak egon daitezkeela, oinarrizko gizarte zerbitzuak Udalaren eskumenekoak direlako. Atxikimenduaren kontuak zalantza asko sortzen dizkit. Testuinguru honetan, orain dela 2 edo 3 hilabete, plataformakoen bisita izan genuen, eta hemen ez da ezer egin Aldundiak fitxa mugitu duen arte. Lan talde bat sortu da, baina, zeintzuk dira talde horren funtzioak? Zein, lan planteamendua? Zeintzuk, helburuak? Egin behar dena da helburuak eta lan planteamendu bat ekarri, eta guk, zer egin behar dugun definitu. Uste dut gai honen inguruan dagoen adostasunarekin ez litzatekeela zaila ados jartea. Gure botua, ezinbestean, aldekoa izango da; baina, garbi gelditzen da hitzarmenak gabeziak dituela, ez duela handinahirik eta ezta zehaztasunik ere.

Alkate jauna: nik esan nahi dut nire zalantzak ditudala propaganda arrazoiei buruz, ez nuke esango plataformak ez direlako kontrolatzen ez zaiela protagonismo handiagorik eman nahi. Bestela, Bizkaian gertatu den bezala, ez litzateke hitzarmen hau sinatuko.

Iregui andrea: abokatuek dokumentu hau aurkeztu zigutenean, esan ziguten aurrez plataformei aurkeztu zitzaiela; eta Udalak egin dezakeenari buruz, esan nahi dut udal etxebizitzak alokairuan ateratzea planteatu genuenean erabaki genuela horietako bateren bat gordetzea kaleratze kasuei aurre egin ahal izateko.

Eztabaida amaitu da.

Kontuan izan da 2013ko apirilaren 30ean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak hitzarmen bat sinatu zutela (akta honekin batera doan eranskinean osorik jartzen dena). Hitzarmenaren helburua da Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetza erregimena arautzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren pertsonei laguntha juridiko eskaintzeo. Pertsona horiek (i) bere etxebizitza bakarra galtzeko arriskuan egon behar dute; (ii) gizarte bazterketaren mugan, diru erreklamazioen ondorioz, horien sorburuan hipoteka bidez bermutatuko mailegua egon ala ez egon; eta (iii) fede oneko zordunak izan behar dute.

Kontuan izan da hitzarmeneko ZORTZIGARREN baldintzan hitzez hitz honako hau jasotzen dela:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek, eskumena baitute hitzarmenak aipatzen dituen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak kudeatzeko, eta nahi duten udal erakundeek eta dirua irabazteko asmorik gabeko laguntha erakunde pribatuek, hitzarmenari atxikitzea eskatu ahal izango dute. Atxikitze hori gauzatu ahal izateko, hitzarmena sinatzen duten alderdiek onartu beharko dute.

Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Cantero jaunak aurka bozkututa, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiekin alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hitzarmena sinatu duten alderdiei Eskoriatzako Udala erabaki honen aurrekarietan aipatutako hitzarmenari atxikitzeko eskatzea.

**Bigarrena:** Beinat Herce Leceta Alkate jaunari ahalmena ematea eskatutako atxikimendua gauzatzeko beharrezko diren dokumentu publiko edo pribatuak sinatzeko.

#### **8.- HAUR ESKOLAKO UDAL ZERBITZUA (0-3 URTE, LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA) KUDEATZEKO KONTRATUA. ZERBITZUA ESLEITZEKO ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA ONARTZEKO PROZEDURA DEITZEA.**

2012ko ekainaren 21ean egindako Udalbatzarraren erabakiz ARIZMENDI KOOP. E. enpresari esleitu zitzaion Haur Eskolako Udal Zerbitzua (0-3 urte, lehen hezkuntzako lehenengo zikloa) kudeatzeko kontratua.

Administrazio baldintza agiriaren arabera, kontratuak urte bateko indarraldia du 2012ko irailaren 1etik hasita. Ondorioz, kontratua, datorren abuztuaren 31n amaitzen da.

Zerbitzu teknikoek zerbitzuaren emakida prozedura irekiaz berriz emateko esleipena arautuko duten baldintza ekonomiko-administratiboak eta baldintza teknikoak egin dituzte.

Kultura batzorde informatzaileak proposatutakoa ezagututa, bozketa egin da eta, udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2013ko abuztuaren 31n amaitutzat jotzea 2012ko ekainaren 21ean Udalbatzarrak erabakitakoaren arabera ARIZMENDI KOOP. E. enpresari esleitutako Haur Eskolako Udal Zerbitzua (0-3 urte, lehen hezkuntzako lehenengo zikloa) kudeatzeko kontratua.

**Bigarrena.-** Haur Eskolako (0-3 urte) Udal Zerbitzuaren kudeaketa esleitzeko prozedura irekia deitzea. Zerbitzua arautzen duen erregelamenduaren arabera egin beharko da kudeaketa.

**Hirugarrena.-** 4.859,02 euroko gastua baimentzea 0405.227.421.00.17 partidaren kontura, 2012ko irailaren 1a 2012ko abenduaren 31ra arteko lizitazio aurrekontuari dagokiona.

**Laugarrena:** Zerbitzu publikoaren tarifik onartzea. Tarifa horiek baimendutako prezio izaera izango dute.

Merino jaunaren boto azalpena: nik alde bozkatuko dut, baina, mesede bat egitearren, jakinean horren monopolioa erakunde pribatu batek duela: Arizmendik, eta lehiaketa bideratuta dagoela beste inor ez aurkezteko. Esan gura dut ere ondo egongo litzatekeela sektore publikoari pixka bat gehiago laguntzea, eta, ez, pribatuari.

#### **9.- EZKER ANITZA-IUK AURKEZTUTAKO MOZIOA HEZKUNTZA KALITATEA HOBETZEKO LEGE ORGANIKOAREN PROIEKTUAREN AURKA.**

Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

ZIOEN AZALPENA

PP-ren Gobernua heldu zenetik, 5.212 milioi euro murritzu dira Hezkuntzan. Murrizketa hauek guztiak hezkuntza publikoaren hondatzea ekarri dute, (irakasle gutxiago, klaseko ikasle gehiagoko ordu gehiagotan; beka gutxiago eta tasa gehiago nahitaezkoak ez diren etapetan eta funtsezko zerbitzuetan, jangela edo eskola-garraioa bezala,).

Espaniako hezkuntza-inbertsio publikoa jaitsi da azken urte hauetako ia 8.000 milioi eurotan eta 2015ean PP-ak beste 15.000 milioi murrizteko konpromisoa hartu du % 3,9taraino, EBeko azken postura kokatuz 80. hamarkadako urteetara itzultzeak ekarriko duena.

Murrizketa hauek Ministro-Kontseiluak onartutako heziketa-kalitatearen hobekuntzarako, lege-proiektuaren (LOMCE-aren) bitartez indartu nahi dute, kalitate heziketa berdintasunean izateko eskubidearen kontra egiten duen erreformak.

- INPOSATUTAKO erreforma da: aurreko eztabaidarik gabe eta heziketa-komunitate osoaren irizpidearen kontra, partekatutako diagnostiko bat gabe.
- BALIABIDEAK MURRIZTERA zuzentzen da: heziketa-kalitatea degradatzen duten eta bere zuzentasunaren kontra erasotzen duten murrizketa basatiengandik.
- Ikuspegia MERKANTILISTA du: soil-soilik ekonomikoak diren interesen mendeangarri jartzen du heziketa, bere helburua ez da hiritarrak heztea, merkatuen beharrak heziketa integralaren aurretik jartzen du, merkaturako "erabilgarriak" ez diren materia eta edukiak kentzen ditu.
- Erreforma PRIBATIZATZAILEA da: Heziketa-Sistemaren parte bezala enpresak sartzen ditu, zentro pribatuak baliabide publikoek sortzea baimentzen du eta paper subsidiarioa ematen dio herri-eskolari.
- Erreforma SEGREGATZAILEA da: ibilbide segregatzaileak zaharberritzen ditu 13 urteetatik, Lanbide Heziketa debaluatzan du eta oztopo-lasterketa bihurtzen du heziketa errebalida baztertzale behin eta berriz jarriaz.
- Erreforma ANTIDEMOKRATIKOA da: heziketa-komunitatearen konpetentziak kentzen ditu zentro-kudeaketan eta administrazioak aipatutako pertsona bakarreko zuzendaritza aukeratzen du.
- Erreforma LEHIAKORRA da: zentroen arteko arteko lehia bultzatzen du, baita bere espezializazioa ere, emaitzen arabera sailkapenak edo rankinga, finantzaketa handiagoa lortzeko balio izango dutena, ezarriaz.
- Erreforma KLERIKALA da: erlijioaren irakaskuntza bultzatzen du eta hierarkia katolikoaren gustuaren alternatiba "gogor eta ebaluagarria" inposatzen du.
- Erreforma SEXISTA da: sexuen arabera banandutako irakaskuntza baimentzen du, eta banaketa hori praktikatzen duten zentroetara finantzaketa publikoa ziurtatzen du.
- Erreforma ZENTRALISTA da: gaztelaniaz aparte beste hizkuntza ofizialak gutxiesten ditu, euskara ere, eta eduki kurrikular gehienak inposatzen ditu Autonomi Elkarte-en eskuduntzak kontutan hartu gabe.

Erreforma honek sartzen dituen aldaketa nagusiak pentsamendu klasista, segregatzaile, uniformetzaile eta zentralistarekin bat datoz. Errezeta zahar hauek, aplikatu diren herrietai ez dute "espero ziren" emaitzarik eman eta nazioarteko komunitate zientifikoak guztiz arbuiatzan ditu errezeta zahar hauek. Ez dute balio etorkizuneko eskola eraikitzea, baizik eta iraganaren heziera txarra zaharberritzeko, zailtasunak dituzten ikasleak heziketa-sistemarako botatzearen alde egiten du apustua. Ikasleak bere gaitasunaren eta bere erosteko alhamaren arabera baztertzearren alde egiten du apustua, heziketa-komunitatearen sektore desberdinaren parte-hartzea txikiagotzearen alde eta bi heziketa-zentro sare sortu nahi du, biak diru publikoaz finantzatutakoak, baina ondo bereizitako ikasle multzo bati zuzendutakoak: sare asistentzial bezala, populazio kaltetuetenetara zuzenduta, zentro publikoak; eta, bere ikasleak aukeratzeko ahalmenarekin, itundutako zentro pribatuak. Ikasleak "españoliza-tzea" ere badauka helburu erreforma honek, euskara bigarren mailako hizkuntza bezala jarriaz, gure kasuan, enborreko jakintzagai izatea sahiesten du, eta horrekin hezkuntza-sistemak ikasle euskaldunak lortzea berma dezala galarazten du.

Kalitatezko hezkuntza-sistemak ikasle guztien heziketa maila jasotzeko konpromisoa onartu behar du, bere jatorri soziala edo abiapuntu egoera edozein izanda ere, banandu gabe eta bere etorkizuneko aukerak mugatu gabe. Heziketa gehiago eta guztiontzako heziketa hobeak: hau da jarraitzeko bidea. Euskadin ere beharrezkoa da ikasle euskaldun eta eleanitzunak sortzea.

Hartarako, beharrezkoa da HEZKUNTZA PUBLIKOa, titulartasuneko eta kudeaketa publikoko, heziketarako eskubide unibertsala berdintasunetako egoeran bermatzen den eta ikasle guztien eskola-arrakastari lagun diezaiona.

Kontzientzia-askatasuna errespetatzen duen eta eskola-curriculumaren doktrinamendu forma guztia ezabatzen duen heziketa LAIKOA. Hark eskatzen du akordioak Vatikanoarekin eta beste erlijio batzuekin indargabetzea, eskola-ordutegiaren erlijioa JADA ateratzea eta ikastetxeen sinbologia erlijiosoa kentzea.

Euskara ardatz duen hezkuntza EUSKALDUNA

ikaslearen ingurune soziolinguistikoa kontutan hartu behar du eta euskara hizkuntzarik ahulena dela onartu behar du, eta egoera hori gainditzeko bideak ezarri.

Ez sexuagatik, ez orientazio sexualagatik eta ez beste inongo izaera ezaugarri pertsonal edo kulturalegatik banantzen ez duen BERDINTASUNEKO heziketa, baterako hezkuntza sustatzen duena.

Zentroen funtzionamendua eta kudeaketan hezkuntza-komunitate guztiaren parte-hartzea bultzatzen dituen heziketa DEMOKRATIKOA..

Udal honek bere ahotsa heziketa-komunitatearen gehiengora elkartu behar du LOMCE eta murrizketak erretira dezatela eskatzenko eta baliabide nahikoak exijitzeko gure hezkuntza-sistema hedatu eta hobetu ahal izateko

Horregatik/ Ezker Anitza-IUren zinegotziak hurrengo akordioa hartzea proposatzen dio Udaleko Osoko Bilkurari:

1.-LOMCE projektua berehala erretiratzea esijitzen dugu, erreforma zentralista, segregatzalea, merkantilista, antidemokratikoa eta hezkuntza komunitatearen aurka egindakoa izateagatik .

2.- Wert ministroaren dimisioa esijitzen dugu, hezkuntza-sistema publikoa desagiten ari delako, babestu ordez.

3.-Eusko Jaurlaritzari, LOMCE aldaketa sakonik onartuz gero konstituzionaltasun helegitea aurkezteko eskatzen diogu, baita neurriak hartzea erreforma hori ez aplikatzeko euskal Hezkuntza sisteman.

4.-Espainiako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari Hezkuntzako murrizketak buktatzeko eskatzen dugu, eta aitzitik, aurrekontuak igotzeko Europako bitarteko mailara ailegatu arte BPGDaren % 7tan kokatuta, Goiko Heziketarako BPGDaren % 2 gainera zuzenduz .

5.- Hezkuntza Ministeriora, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera Diputatuen Kongresuaren eta Senatuaren Taldeetara eta udalerriaren ikastetxeetara eta azken hauen guraso-elkarteetara, mozio honen berri ematea.

2013ko Maiatzaren 20a.

Eskoriatzako Ezker Anitza-IU .

Madinabeitia jaunaren abstentzioarekin, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

## **10.- PSE-EE TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA "GESTO POR LA PAZ" ELKARTEAK EGINDAKO LANA AITORTZEKO ETA ESKERTZEKO.**

Cantero jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

**PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA ESKORIATZAKO UDALBATZARRAK EZTABAI DATU ETA,  
HALA BADAGOKIO, ONARTU DEZAN**

Duela 28 urte eta bi hamarkada baino gehiagoren ondoren, "Gesto por la Paz"ek jakin zuen hiritar-miletako existentzia eta ubide ez alderdikoia aurrez aurreko arbuiatzeko sentimenduan oinarritutako uste oso batzuk publikoki adierazteko behar zuten hiritarra ulertzea bortizkeria horretara. Zentzu horretan izan ziren hiritar asko - bortizkeriaren kontra zeuden - arbuiatz hori azaleratzera ausart zitezela eragiten zuen halako "uzkurtasun" zibil bateko hausturako egileak.

Bere iraunkortasuna, bere seriotasuna, balio batzuekiko defentsako bere sendotasun demokratikoa, euskal gizartearen errespetua egunero irabazi zuten.

Bortizkeriaren kontra, defentsaren eta giza eskubideetarako errespetuaren eta bake-kulturaren alde, borrokan ia hiru hamarkadaren ondoren, terrorismoko biktima guztien onarpena bezala, eta Euskadin bakearen sendotzeko eta bizikidetasunaren irekitako denbora berriaren aurrean horrela, 2011ko urriaren 20ko ETAREN jarduera terroristaren amaieraren ondoren, joan den maiatzaren 6an erakunde deuseztatzeko erabakia hartu zuten.

Atzean urteak lana geratuko dira ia, bere pankartak finkatzeko jendea, eta oso gutxi izan orduko mugimendu hau babesten zuten pertsonak, ohi ez bezalako baliozko dosiaz eta gizartearekiko konpromisoaz kargatuta, zirenean, bakardadean. Urte batzuetan eta ahazterik, inola ere, utz ez diezaiogegun lana.

Hau proposamen oso garrantzitsua da, onarpen instituzionalaren eskaera nahi duela goia mailara, antolaketa hiritar honetatik, lan egin duten pertsona haiei guztiei - hiritarra anonimoei - Udaleko Osoko Bilkuragatik eta borroka eginda Euskadiko bortizkeria terroristako absentzia agertoki bateko lorpenagatik.

Antolaketa bakezale honen sorrera da hura beharrezkoa Udaletxe honen aldetik onarpen publikoko errealizazioa modu beraren "Gesto por la Paz"en lanaren alde ulertzten dugun guztiagatik beharrezko ulertzten dugula zabaltzen dituzten eta oinarritu zitzuten printzipioak bultzatzen dituzten ekimen antolaketa.

Nahi dugu zeinen gainean, "Gesto por la Paz"en lana oinarritu zituen oinarri etikoa ere nabarmentza, gizarte demokratiko bezala gure etorkizunaren eraikuntza bortizkeriaren deslegitimazioa onartzeko beharrean, edozein justifikazio arbuiatzean edo honen aitzakian hura testuinguru sozial edo politikoarekin erlazionatz oinarritzen den oinarri etikoa.

Eraiki behar dugu nabarmena etorkizuneko belaunaldiatarako den eta etorkizuna | eraikitzeo balio duen memoria biziak, plural eta, biktimenganako errespetutik beti, partekatutakoa.

Horregatik guztiagatik mozioa aurkezten dugu, hurrengo puntuekin, bere onespenerako:

1.- Eskoriatzako Udalak aitorru eta eskertzen du Gesto por la Paz koordinakundeak egindako lana bakearen alde, giza eskubideak errespetatzearen alde eta indarkeriaren eta terrorismoaren aurka.

2.- Eskoriatzako Udalak erakunde guztiei eta, orokorrean, gizarteari, eskatzen die terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guziak aitorrako dituen memoria publikoa eraikitzeko, eta memoria horretan beraien oinarrizko eskubideen urraketa jasan zuten biktima horien guztiak jaso daitezela.

3.- Eskoriatzako Udalak euskal erakundeei eskatzen die bakearen kulturaren zabalkunde eta kultura horretarako prestakuntza bultzatzea eta indarkeriaren deslegitimazioa eta terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen aitorpena sustatzea.

4.- Mozio hau Gipuzkoako Batzar Nagusiei, Foru Aldundiari, Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari, Diputatueng Kongresuari, Senatuari eta Estatuko Gobernuari bidaliko die Udalak.

Ondoren, eztabaidea hau izan da:

Alkate jauna: gu abstenu egingo gara, uste baitugu 2011n hasitako prozesua, herri honetan aldaketa handia ekartzen ari dena, oraindik ere amaitu gabe dagoela; uste dugu prozesu hau hasi besterik ez dela egin, eta bertan herritarrek eta hainbat elkartek ere, Gesto por la Paz barne, parte hartu behar dutela.

Cantero jauna: mozioan ez da inongo prozesutaz hitz egiten; urte hauetan bakearen aldeko elkarte batek, Gesto por la Pazek, egindako ibilbidea aitorrakoa gura da; izan ere, momentu honetan desegiten ari baita, eta bertako kide bakoitzak, elkartetik kanpo, bakearen alde lanean jarritzeko apustua egiten du. Horretaz ari garela, Deseginda! beste

elkarteko batzuk ere ez dira desegin eta Gesto por la Pazek egin duena egin beharko lukete: inolako baldintzarik gabe desegin.

Merino jauna: guk IU bezala, Gesto por la Pazek egindako lana aitortzen dugu, eta baiezko btoa emango dugu.

Urrutia jauna: guk baiezko btoa emango dugu, erabat ados gaude mozioak esaten duenarekin. Aitortzen dut nik neuk ere, bere garaian, elkarteko kide izan ez banintzen ere, parte hartu nuela Gesto por la Pazek antolatutako mobilizazioetako batzuetan; eta gogoratzen dut gu han ginengoa bitartean bazeudela beste batzuk parean *akabatu horiek!* eta horrelako gauza politikak esaten. Ni mozioaren aurka bozkatzera gonbidatzen zaituztet (Alkateari esan dio). 2011. urtea aipatu duzu, eta mundua ez zen hasi 2011. urtean, Gesto por la Pazek kaleratu zuen sentsibilitatea ez zen 2011n hasi.

Hitz egiteko txandak amaituta, mozioa bozkatu da. Aldeko 4 botorekin (Urrutia jauna, Ezpeleta jauna, Cantero jauna eta Merino jauna) eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek abstentuta, mozioa onartu da.

## **11.- ESKORIATZAKO ZERO ZABORREK ESKATUTA AURKEZTUTAKO MOZIOA ERAGINDAKO KALTEEN AITORTZA EGIN ETA KONPROMISO ETIKOA ONARTZEKO.**

ESKORIATZA ZERO ZABOR taldeko ordezkari bati hitza eman ondoren, Udalbatzarrari, onartu dezan, aurkezten zaion mozioa irakurri du.

Ondoren transkribatzen da mozioaren testua:

Eragindako kalteen aitortza egin eta **KONPROMISO ETIKOA** onartzeko mozioa

Aspaldian ez bezala, Eskoriatzako herritarra herrian dauagun arazo larri batetaz mintzo gara. Arazoa ezkutalekutik atera eta mahai gainean jartzea lortu dugu guztiaren artean. Askotan eztabaidea arduratsu eta eraikitzaile batek izan behar duen ezaugarrietatik aldendu arren, herritarra arazoetaz aritza oso positibotzat daukagu. Jendarte demokratiko baten funtsezko ezaugarria da hori. Eskoriatzako herritarrok urtean milaka tona (mankomunitatetik edota udaletik lortu) hondakin sortzen ditugu. Hondakin horietatik gehienak nahastu eta zabor bihurtzen ditugu, inork etxetik gertu nahi ez dugun zaborra sortuz. Herrian nahi ez dugun zabor hori, beste herri batzuetara bidaltzen dugu eta beste herritar batzuk pairatzen dituzte guk sortutako zaborren ondorioak.

Eskoriatzarrak errealitye horren jakitun izan behar dugu, eta guk eragindako kalteak pairatzen dituztenekiko begirune osoz jokatzea dagokigu. Eskoriatzarrok ez dugu udalerri arteko harreman kolonialik nahi. Ez dugu nahi, Eskoriatzarrak geurekoitzat har gaitzaten. Eskoriatzarrok gizalegez jokatu nahi dugu eta arazoei arduraz ekin. Arazoa konpontzearen alde gaude eta ez arazoa beste herri bati pairatu araztearen alde. Arazoa zaborra da, eta konponbidea, ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta sortutakoak ez nahastea. Eskoriatzarrok zor bat dauagun guk sortu, baina nahi ez dugun zaborra jasotzen duten herrietako biztanleekin. Ahalik eta kalterik gutxiengoa sortzea da zor horri erantzuteko era bakarra. Hori da hain zuzen ere gure **KONPROMISO ETIKOA**

Hori guztia kontuan hartuz udalbatza honek ondorengoa erabaki du:

· Udalak, Eskoriatzarron zaborra jasotzen duten herrietako biztanleei ahalik eta kalterik txikiena eragiteko **KONPROMISO ETIKOA** bere egiten du, eta hori bete ahal izateko ondorengo neurriak hartuko ditu:

- o Ahalik eta hondakin gutxiengoa sortzea burutu ditzakeen ekintzak aztertuko ditu.
- o Sortutako hondakinak nahasi gabe biltzeko emaitza hoberenak lortzen dituzten bilketa sistemak ezarriko ditu.

o Herritarren parte hartza bultzatuko du, herritarrek ondo informatuta egon daitezen, herritarrek aipatutako konpromisoak betetza bermatuko duten proposamenak egin ditzaten, eta konpromiso etiko hoiek betetzen dituzten proposamenen artean erabaki dezaten.

- Udalak, hartutako erabaki honen berri herritar guztiei emango die.

Hitz egiteko txanda irekita, zinegotziek hitz egin dute ondoren jasotako txandan. Ez dira transkribatzen publikoak esandakoak, baina, jasota gelditzen da horiek bilkurak bideoan grabatuta daudela.

Cantero jauna: mozio hau asmoz beteta dago, eta sozialistok ez gatoz inolaz ere bat horiekin. Ezin da esan guztiaren artean arazo bat zabaldut eta mahaigainean jarri dugula. Hemen, arazoa Bilduk sortu du, hondakinak batzeko sistema jakin bat inposatuta jendearen artean beharrezko ez diren tentsioak sortzen ari baita Gipuzkoako herri askotan. Jendea kalera atera behar izan da Atez Atekoaren aurka manifestatzera, herri kontsultetara bozkatzera joan, eta azken batean, zaborra batzeko sistema garestiago, deseroosoago eta ekonomikoki jasangaitza denaren aurka manifestatzera. Gauza bat da hondakinen birziklapena sustatzea eta erraztea, edukiontziz bidez ere sustatzen dena; eta beste bat, orain, konpromiso etikoaren istorio honekin etortzea. Orain aztertu behar al dira Eskoriatzan ahalik eta zabor gutxien sortzeko ekintzak? Orain ezarri behar al dira hondakin bilketan emaitza onenak eman dituzten sistemak? Orain sustatu behar al da herritarren parte hartza informazioa emateko? Baina, zer uste du Bilduk? Eskoriatzako herritarrek inozoak direla? Beste herri batzuetan ados jartzen ari direnean, Bilduk ontasun pixka bat jarri nahi dio egindako inposizioari? Ez dezatela sozialistekin kontatu. Mozioak honako hau dio: “Herrian nahi ez dugun zabor hori, beste herri batzuetara bidaltzen dugu eta beste herritar batzuk pairatzen dituzte guk sortutako zaborraren ondorioak” “Arazoa zaborra da, eta konponbidea, ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta sortutakoak ez nahastea”. Bi esaldi horiek, arazoak duen garrantziagatik ez balitz, honako doinu hau dute: “nik neuk neuretzako ere nahi ez dudan moto bat saldu behar dut”. Nahikoa du Bilduk, herritarrek eta horien ordezkarriak inozotzat hartu eta ziria sartu nahi izatea... Mozio honen bidez Bilduk legez hartutako erabaki batean atzera egin nahi du, Atez Ateko bilketa sistemaren alde hartutako erabakiarekin, hain zuzen ere. Eta orain, orain denok onak gara, denok sortu dugu arazoa, denok gara erantzule; eta, beraz, ea amore ematen dugun, konpromiso etikoaren hau onartzentz dugun, nahiz eta oraindik ez jakin zertara datorren etikaren kontu hau zaborren arazoan. Eta hori, atzera egiteko modu bat da, besteak implikatzeko modu bat. Hau da, besteok atera behar izatea eurak bakarrik sortu duten arazotik. Arazoa da, Udal honetan behin eta berriz onartu den Atez Ateko sistema, Bilduk zalantzan jarri duela beste udal batzuetan; horietako batzuetan, herri kontsultak egin ondoren, Legazpin bezala; eta beste batzuetan, bosgarren edukiontziaaren alde eginda, esate baterako, Zarautzen, Zumaian eta Ormaiztegin. Hau da, atzera egitea da, eta argi eta garbi aitortu gura dute oker zeudela. Mozioan honelakoak ere esaten dira “besteek kalterik ez eragiteko egiten dugu, besteek zaborrik ez eramatearren”. Hau da, besteen onerako sakrifiku behar gara. Herrien arteko harreman kolonialei buruz hitz egiten da. Nik ez dakit, kasu honetan, Eskoriatzak, beste herri batzuetara eramandako zikinkeriek beste herri batzuetan kexarik sortu duten, eta aztertu diren. Eta, gainera, beste kontu bat, Bildu prest baldin badago beste aukera batzuez hemen hitz egiteko, mozio bat ekar dezala udalbatzarrera eraginik gabe uzteko Atez Atekoaren aldeko aukera onartzeko mozioa. Eta, batez ere -baita beste kontu batzuetan ere-, arrazoiak eman beharko dizkigu: zergatik hain sanoa, hain osasuntsua zen zerbait, % 80tik gora birziklatzen zuena, zergatik hura orain ez da hain ona, eta zergatik da etikoa hura aldatzea, edo, hura ez zen hain etikoa? Zalantza horiengatik, guk, esan beharrik ez dago, ez dugu inolaz ere mozioaren alde bozkatuko. Eta konpromiso etikoak Bildurekin, bat bera ere ez, eta kontu hauetan, ba, gutxiago. Esaten du horretaz hitz egin dela herrian; baina, zergatik hitz egin da horretaz herrian? Hau da, aurreko agintaldian Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako hiri hondakinen gaineko plan bat zegoen, gehiengoa zuena, orain ere gehiengoa duena Gipuzkoako Aldundian eta Eusko Legebiltzarrean; eta, Hondakinen Kontseiluan eta udal batzuetan duen gehiengoa aprobetxatuz beste aukera bat planteatzen duena Bildu da. Uste dugu atzera egiteko modu bat dela, eta gaiaz hitz egin izanari buruz, gaiaz hitz egin da, tentsioak sortu dira, lehen ez zeuden plataformak sortu dira, eta ikusi ahal izan da kontu hau guztiau

zalantzian jartzeko gogoa dagoela herritarren aldetik. Ikusi dugu nola Bilduk ez duen egin nahi herri konsulta bat Eskoriatzan, eta Legazpiko kasua daukagu, ehuneko laurogeita hamapikuk Atez Ateko sistemaren aurka bozkatuta % 55eko parte hartzearekin. Horrek guztiorrek erakusten du plataformak bizirik daudela, gizartea bizirik dagoela, eta erantzun duela burututako ekintza bidez; eta batez ere, herria kontuan izan gabe Bilduk inposatu nahi izan duenean. Beraz, gaia ez luzatzearen, aurka bozkatuko dugu.

Alkateak adierazi dio mozioa ZERO ZABOR taldeak sinatzen duela eta ez Bilduk, eta ez nahasteko bata bestearekin. Cantero jaunak erantzun dio hemen denok ezagutzen dugula elkar.

Merino jauna: 2011ko martxoan Ezker Anitza-Izquierda Unidak aurkeztutako mozioa bat onartu zen Udal honetan, eta bertan ia gauza bera eskatzen zen. Hiru puntuak mozio horretan jasotzen ziren, baina, onartu zen mozio horretako 2. puntuak, gobernu taldeak ere onartu zuena, honako hau dio: *Osasunaz gain, hondakinak kudeatzeko orduan ingurumena kalte lezakeen edozein tratamendu baztertzen du*. Horrekin, esan nahi dut “lehoien lurrealdean denak txapeldun izatea nahi dutela”. Zumaian gertatu dena, hondakin kontuan gertatu den zentzuzkoena dela uste dut. ZERO ZABOR-EK, PSE-K, EAJ-K, BILDU-K eta ATEZ ATEKOAREN AURKAKO PLATAFORMAK sinatu dute. Nik uste dut iritsi garen lekura iritsita, ez garela inoiz ados jarriko. Zentzuz jokatzea eta zorroztasuna falta zaizkigu. Gauza bat dugu komunean: birziklatzea nahi dugula. Badugu nondik hasi. Nik mozio hora aurkeztu nuenez, (2011n aurkeztutakoaz ari da) eta onartu zenez, abstenitu egingo naiz ZERO ZABOR taldeak aurkeztutako honetan, nire taldeak aurkeztutako bat onartuta dagoelako.

Urrutia jauna: nik, bilkurarako dokumentazioa jaso nuanean eta mozio hau irakurri, aitortzen dut 4 aldiz irakurri behar izan nuela. Badira arreta bereziki deitzen didaten kontu batzuk: “azpaldian ez bezala, Eskoriatzako herritarra herrian daukagun arazo larri batetaz mintzo gara”. Bai, baina, egon daitezke hainbesteko hizpide izan ez ditugun beste gauza batzuk ere, eta lehen esan dizudan bezala, mundua ez zen 2011n hasi, eta, beharbada, beldurragatik, beste gauza askotaz hobe izan da ez hitz egitea denbora askoan, baita Udal honetako osoko bilkuretan ere. “Herrian nahi ez dugun zabor hori, beste herri batzuetara bidaltzen dugu eta beste herritar batzuk pairatzen dituzte guk sortutako zaborraren ondorioak.” Bai, Nafarroara bidaltzen da, Iparraldera; orain, Olazagutia atzera egin du, Funesera bidaltzen da. Ezin da ezer onuragarririk egon eztabaidea honetan, norbaitek esan diezadake zerbait suntsigarririk egon den? Nik dakidanez, udalbatzar honetan eztabaidea onuragarriak egon direlako. Eztabaidak gogorrak izan daitezke, baina, baita onuragarriak ere. Uste dut hitz egin denean errespetuz hitz egin dela, eta ez dakit batzuk zerbait suntsigarria dagoela esaten dutenean zeri buruz ari diren. Beharbada, izan daiteke beti protestaka aritu diren aurkako protesta handia sortu delako orain. “Eskoriatzarrok ez dugu udalerri arteko harreman kolonialik nahi.” Ez dakit zer esan gura den horrekin.” Ez dugu nahi, Eskoriatzarrak geurekoitzat har gaitzaten”. Ezta pentsatu ere. “Eskoriatzarrok zor bat daukagu guk sortu, baina nahi ez dugun zaborra jasotzen duten herrietako biztanleekin. Ahalik eta kalterik gutxiena sortzea da zor horri erantzuteko era bakarra. Hori da hain zuzen ere gure **KONPROMISO ETIKOA**”. Beste konpromiso etiko batzuei buruz ere hitz egin dezakegu, eta eskoriatzarrok dugun beste arazo larri batez ere bai, konpromiso etiko mota asko daude. Azken finean, nik jakin gura dut zein den mozio honen azken helburua. Egiten diren hiru eskaerei buruz, ados egon naiteke:

- Ahalik eta hondakin gutxien sortzeko burutu ditzakeen ekintzak aztertuko ditu.
- Sortutako hondakinak nahasi gabe biltzeko emaitza hoberenak lortzen dituzten bilketa sistemak ezarriko ditu. (Eta zein da hori? )
- Herritarren parte hartzea bultzatuko du, herritarra ondo informatuta egon daitezen, herritarrek aipatutako konpromisoak betetzea bermatuko duten proposamenak egin ditzaten, eta konpromiso etiko hoiak betetzen dituzten proposamenen artean erabaki dezaten.

Eta orain gauza bat esan gura dizuet, orain mundu guztia apuntatzen baita konsultara; agintaldi honetan neu izan nintzen konsulta egiteko eskatu zuen lehena, baita udal guztiak kontuan hartuta ere. 2011ko abenduaren eta 2012ko urtarrilaren artean eskatu nuen. Ongi etorri guztiok orain konsultara. Eta besteren batean kontatu nuen anekdota

hau: behin, Bilduko zinegotzi batekin nengoentzako planteatu nion orduan aukera zutela hanka ateratzeko sartutako lekutik. Konsulta bat egitea proposatu nion, zuek irabazten baldin baduzue, gu isildu egin beharko gara; eta guk irabazten baldin badugu, egindako hanka sartzea konpontzeko aukera duzue. Bere erantzuna hau izan zen: "ez, hori ezin da egin, hau Bilduren proiektu estrategikoa da". Bestalde, asko hitz egin da parte hartzeaz eta herriaren parte hartzeaz, eta, hemen gauden ordezkari politikoena? Beste herri batzuetan gertatuakoa ikusita, adibidez, Zumaian, zein da gobernu taldearen asmoa? Ze asmo duzue? Zer nahi duzue? "Harreman kolonialak" moduko hitz potoloekin ziaboga egiteko asmoa duzue, tira, Beñat! Hemen ZERO ZABORrek sinatzen du, beste leku batzuetan, HERRIAK, baina, hona etortzen direnak beti berak dira. Eta Eskoriatza ez da hain handia eta denok ezagutzen dugu elkar. Nik proposamen bat egin behar dizuet. Nire berezko joera ZERO ZABORrek aurkeztutako zerbaiten aurka bozkatzea izango zen, baina, ez dut aurka bozkatuko, abstentu egingo naiz, eta eskua ematen dizuet eta proposatu mahai bat osatzeko, bete herri batzuetan egin den bezala; baina, mahai bat guztiekin, ez bakarrik ohituta zaudeten klase organiko demokratikoarekin; guztiekin! Kaleratzeekin egin gura den antzeko zerbait egin daiteke. Ez dakit hori egin daitekeen, baina, eskatuko nizueke ez ahaztea Udal honetako zinegotzietaz.

Ezpeleta jauna: lehen esan den bezala, mozio hau ez du Bilduk sinatzen. ESKORIATZA GARBIKO mozia ere beraiek beraien izenean sinatzen zuten bezala eta elkarte horren moziotzat hartu genuen moduan, uste dut mozia hau berdin tratatu behar dela. Komentatu da orain arazo bat sortu dela, eta ez dakit mozia ez den ulertu edo ez den ulertu nahi izan. Nik oso garbi ikusten dut zein den arazoa: arazoa zaborra da. Eta arazo hori ez du sortu ez Bilduk, ez PSOEk ez Ezker Anitzak. Arazoa zaborra da eta gaur egungo gizartea sortu du. Komentatu da ere, hemen dugun arazoa beste herri batzuetara igaroko dela ez badugu erabaki irmoak hartzen. Uste dut kontuan hartzeko gai bat dela. Zuk, Aitor, komentatu duzu gaur egun zaborra Funesera eta beste herri batzuetara bidaltzen dela. Uste dut gaur egun hondakinak tratatzeko ditugun arazoa ez direla ezer errauztegiak sortu ditzakeenekin konparatuta; eta gaur egungoak, konpondu daitezkeen eta konponduko diren arazoa dira. Esan da ere sistemarekin atzera egitea dela. Uste dut orain dela garaia zuk, Aitorrek, esandakoa egiteko: mahai bat sortzea. Guk asmo hori dugu, eta, izan ere, mahaia eratzeko deia egin dugu. Gertatzen dena da, hemen, zoritzarrez, eta horrela ikusten dugu guk, bi eztabaidea gune daudela: bata, benetako, herriarena, eta horregatik deitu diegu herritarrei; eta, bestea, politikoa. Eta, zoritzarrez, eztabaidea ezberdinak dira. Horregatik, mahai bat sortu behar dugu, eta bertara gonbidatzen zaituztegu, ongi etorriak izango zarete. Eta, bi lan mahai sortu gura baldin badira, bata herritarrekin, eta, bestea, politikoekin, ba, nire aldetik ados eta lanerako prest.

Alkate jauna: mahai politikoa sortuta dago, garapen batzordea existitzen da, eta bertan eztabaideatu da gai hau, orain zurekin, eta lehen, Leirerek. Gauza asko esan dira, ezingo diet denei erantzun, baina, nahiko nuke horietako batzuei akabera ematea. Esan da orain asko hitz egiten dela arazo horretaz, eta badirela beste arazo batzuk ere. Esan nahi dut guk, bere garaian, prozesu parte hartzale bat ireki genuela, eta herriar askorekin arazo asko eztabaideatu eta jorratu direla; batzuk ez duzue parte hartu horrelako eztabaidea batean ere, eta parte hartzera gonbidatzen zaituztet. Esaten duzue gure zaborra Nafarroara eta Iparraldera eramaten ari garela. Eta, bitxia da jakitea zergatik eraman behar dugun gure zaborra beste leku batzuetara: aurreko agintaldian ez ziren egin egin beharreko azpiegitura guztiak, bakarrik, Lapatx. Eta horrela geratu gara. Eta, egungo Aldundiari eskatzen diot, eta horrela egitea espero dut, bere planean proposatzen dituen azpiegitura guztiak egiteko. Eta, onartu duzue hemen gai honi buruz eztabaideatu dela, eta asko eta errespetuz hitz egin da; eta horrela jarraituko dugu, guztiokin hitz egiten. Mozioan "geurekoi" hitza ere agertzen da, eta nik uste dut "geurekoi" izango garela herri batek bere zaborra birziklatzen ez duen bitartean eta dena nahasian bidali Azpeitira, Zarautzera, Beasainera, bere garaian San Markosera, eta espero dut etorkizunean ez bidali behar izatea Zubietako erraustegira. Inolako erraustegirik ez jartzea espero dut, ez Zubietan ez beste inon. Konsultari buruz entzun dut ere konsulta guk irabazten baldin badugu, zuek galtzen baldin baduzue, guk galtzen dugu, zuek irabazten duzue... hemen kontua ez da IRABAZTEA-GALTZEA. Hemen egin beharreko erlazioa IRABAIZ-IRABAIZ da. Eta horretan sarri asko erortzen

gara politikan, eta horrela ez goaz inora. Proiektu estrategiko bat dela, ba, bai, bakoitzak berea du. Eta esan duzue ZERO ZABOR-Bildu bat zarete. Ba, eskatzen dizut plataformen koordinadorako presidentearen deialdia Gipuzkoako Batzar Orokoretako presidenteak eginda balitz bezala ikusteko. Zuk, Aitor, proposamen bat egin duzu, mahai horretarako deialdia egingo da eta guztiok zaudete gonbidatuta. Cantero jaunari zuzenduta, honako hau esan du: Zumarragako bosgarren edukiontzia dagokionez, nik galdezen diot neure buruari ea noiz egin den horri buruzko kontsultaren bat, eta ea ez den hori inposizioa ere izan. Beharbada, herriak beste zerbaite gura zuen. Egin da inoiz Zumarragan kontsultarik hondakin bilketa sistemari buruz? Ba, ez. Ba, ez izan demagogoak eta batzuei diktadore deitu eta beste batzuei karitateko aingeru. Deitu diezaiegun gauzei bere izenekin. Eta, amaitzeko, eta "konpromiso etikoa" terminoa kritikatu denez, gogorarazi nahi dut, hemen, orain dela bost bat urte, mozio etiko bat aurkeztu zela, eta etikaz hitz egiten dugunean dena hartu behar dugu, eta ez bakarrik gobernu jakin baten aurkako mozio bat denean. Eta, bai, etikaz hitz egin behar da, eta baita zaborren kontuekin lotuta ere; zeren eta guk, gure jarrera egoistarekin, beste herri batzuk behartzen ari gara usain txarrak jasatera, hondakindegia izatera, ke kaltegarriak eta abar. Gu has gaitezen gauzak ondo egiten, kemenak berritu ditzagun, ordua da-eta, adostu dezagun adostu beharrekoa eta aurrera egin dezagun. Bueno, uste dut argi gelditu dela guk mozio honen alde bozkatuko dugula.

Urrutia jauna: bueno, orain, bandera modura, ikusten da Gipuzkoako leku askotan atzera egiten ari zaretela, eta orain, bandera bezala, erraustegiaren kontua hartuko duzue. Baina, hain zuzen ere, erraustegia da zaborrarekin amaitzeko irtenbidea. Hemen planteatzen dena da "ahalik eta gehiena birziklatu, ahalik eta gehiena konpostatu, eta ezin dena birziklatu (badagoelako birziklatu ezin daitekeen frakzio bat) erre eta birbalorizazio energetikoa atera. Hori da proposatzen dena, eta hori da herrialde garatuagoenetan egiten dena. Hori horrela da, eta nahi dituzuen diskurtso guztiak egin ahal izango dituzue beldurrari buruz, eztakit non jarriko dugulari buruz, baina, hori hala da. Eta Eiffel dorretik 5 minututara erraustegi bat baldin badago, ez dut uste frantsesek edo paristarrek gaixotasun larriak hartzeko gura dutelako izango denik. Igorrek esandako zerbaitek harritu nau: mahai sortu da, deialdia egin dugu, egin dugu? Nik oraindik ez dut jaso, eta ez dakit norekin egin duzuen. Eta errepikatuko dizuet, ez badira ordezkarri politikoak kontuan hartzen ez da mahai bat behar bezala osatzen. Esaten duzue arazo politiko bat eta herriaren arazo bat dagoela, diskurtso politiko bat eta herriaren diskurtso bat. Barkatuko didazue, baina, horrelako gauzak Francok esaten zituen, demokrazia batean diskurtso politikoa eta herriarena eskutik doaz. Horrekin guztiorekin uste dut gauzak zuen alde jarri nahi dituzuela hitz politekin. Udaletxera sartu zinatenean prozesu parte hartzaile bat martxan jarri zenutela, bai, bai, ikusten dut zenbat balio duten prozesu parte hartzaile batzuk. Adibide bat jartzearren, lehentasun batzuk atera ziren, eta orain, nolabait, kasu egiten ari zaio lehenari; uneoro lehentasuna eman zaiona laugarren gelditu zen. Ez dakit zenbateraino kasu egiten diozuen ireki zenutela esaten duzuen prozesu parte hartzaile horri. Eta honako hau esaten duzue: pentsatzen duzue zergatik bidali behar diren zaborrak? Bai, birziklatu ezin daitekeen frakzioa nonbaitera eraman behar delako, eta ez garelako gai horri irtenbide bat emateko, gure kasuan, Gipuzkoan. Eta, gainera, arazo bat sortu duzue konponbidea zegoen tokian, horregatik bidali behar dira bidaltzen diren lekura. Azpiegiturak ez zirela egin, ba, bazegoen plan ekonomiko bat horiek egiteko. Pozten nau entzuteak ez dela IRABAIZI-GALDU, GALDU-IRABAIZI. Behar dena IRABAIZI-IRABAIZI dela. Ados nago, baina, ez zara konturatu IRABAIZI-IRABAIZI txip horrekin daudenak leku askotan bosgarren edukiontzia aldeko apustua egiten ari direla? Beste gauza bat, ez dut uste gaiari buruz izan ditugun eztabaida guztieta nire ahotik "inposizio" hitza entzun duzuenik. Ez dut uste, eta ez dut uste, nire iritzia emango dizuedalako. Nik ez dut uste Bilduk inor engainatu duenik politika honekin, aurreko agintalditik ikusten zen zerbaite zen. EAkoren bat engainatuta sentitzen baldin bada, allakuidao! Ezker abertzaleak bazekarren kontu hori, eta nik ez dut ikusten ez engainu moduan ez inposizio moduan. Nik ikusten dudana da gehiengo instituzionala duzuen lekuetan inplantatzen saiatzen ari zaretela, eta nik, gehiengo instituzionala errespetatzen dut. Beste kontu bat da protestatzea, eztabaidatzea. Eta nik ez dut hori inposizio bezala ikusten, eta ez dut uste nire ahotik hitz hori entzun duzuenik. "Mozioa etikoa" aipatu duzu. Mozio etikoei buruz

uste dut, beste hark esaten zituenak kontuan izanda, horrelako izenik gabe ekarriz gero, gaur egun, gutxienez, abstentu egingo zinetela.

Alkate jauna: esan duzu erraustegia dela zaborrarekin amaitzeko sistema, noski! Jakina! Bain, hor dago arazoa, zaborrarekin batera birzikla daitekeen materia asko erretzen baitugu. Eta, erraustegiaren proiektua ikusten badugu, ikusiko dugu pentsatuta dagoela Gipuzkoan, gehienez ere, % 40 edo 50 birziklatzeko. Eta lortu behar da birziklatu daitekeen guztia sailkatuta jasotzea, Europatik esaten den bezala. Mahaia sortuta dago, eta gure ustez zaborraren gaiarekin interesa erakutsi dutenei deitu zaie, plataforma biei: ZERO ZABOR eta ESKORIATZA GARBIA. Zergatik? Zuek sekula ez zaretelako joan Garapen batzordera, eta hona mozioren bat ekarri dugunean bakarrik eztabaidatu duzuelako gaiari buruz. Badakit gaiak interesatzen dizuela, baina, zuek ere interesa erakutsi. Nik ez dut inolako eragozpenik mahai horretara zuek gonbidatzeko, inoiz ez dugu izan arazorik hitz egiteko. Eta inbertsioen rankinari dagokionez, beti zabiltzanez antzokia gora eta antzokia bera, ba, bai, lehen inbertsio bezala asfaltatua gelditu zen, eta antzokia laugarren izan zen. Ba, inbertsio biak batera egiten ari dira. Eta, amaitzeko, IRABAZI-IRABAZI egiteko lan harremana sortu behar da.

Urrutia jauna, (mozoarekiko bere planteamendua argitu du berriz ere): ni abstentu egingo naiz. Ados egon naiteke bertako 3 punturekin, baina, bigarrenaz ez naiz fio. Zein da sistema onena? Niretzat argi dago eta ez dut inolako obligaziorik zuek aurkeztutakoarekin ados egoteko. Beste kontu bat: 2020rako zaborrak erretzea debekatuko dela Europan; baina, zer erraustegi motatan? Ez dira belaunaldi berrikoak, eta hor egitea proposatzen dena belaunaldi berriko da. Eta beste gauza bat gogoraziko dut: Europako laguntzak zituela. Nik ez dut nahi mundua kaka eginda uzterik. Eta, berriz esango dut, zuek planteatzen duzuen sistemarekin ez zaio irtenbiderik ematen zikloari, gauza bat zaborra biltzeko sistema delako, eta, beste bat, zaborrari ematen zaion tratamendua. Eta, zabor asko kanpora bidaltzen baldin bada, prozesuari amaiera emateko gai ez garelako da. Orduan, harreman kolonialak eta abar, beharbada, hortik dator. Eman diezaiogun guk irtenbidea gure arazoari beste inora bidaltzen ibili gabe.

Alkateak erantzun dio esandako horrek Atez Atekoaren filosofiarri erantzuten diola, eta egungo Aldundiak onartutako planean aurreikusten dela prozesuaren azken fasea.

Eztabaidea amaituta, bozketa egin da, eta aldeko 5 botorekin (Alkate jauna, Iregui andrea, Herce jauna, Ezpeleta jauna eta Petralanda jauna), aurkako boto 1ekin (Cantero jauna) eta 4 abstentziorekin (Madinabeitia jauna, Arkauz andrea, Urrutia jauna eta Merino jauna), onartu da mozioa.

## **12.- FRANKISMOAREN KRIMENEN AURKAKO KEREILAREN EUSKAL PLATAFORMAK ESKATUTA AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

ZIOEN AZALPENA.

1936.eko uztalean Francok burututako altxamendu militar-faxistak Errepublikaren bidezko Gobernua eta Gobernu Autonomiko guztiak ezabatu zituen, industri, nekazal eta finantza oligarkiaren laguntzarekin, Elizaren agintari eta partaideek tarteko, eta erregimen politiko totalitario bat ezarri zuen askatasunaren, justizia sozialaren eta Estatuko Nazioen eta Herrien eskubideen aldeko pertsona ororen suntsitze fisikoa eraginaz.

Diktadura hura, ideologikoki “nacional-catolicismo” delakoaren zutabeetan finkatua, armadak, finantza eta industria oligarkiak, lur-jabeen klaseak eta Elizako agintari gehienek mantendu zuten. Hurrengoko berrogei urteta oposizio ororen aurkako errepresio orokorra izan zen, tortura sistematikoak, “paseoak”, heriotza-zigorak, eta kartzela zigor luzeak erregimenaren aldeko

epaileek jarrita, beti prest beraien lege faxistak aplikatzeko atxilotuei inongo defentsa aukerarik eman gabe.

Francoren heriotzaren ondoren, herriaren borrokek eta presio internazionalak frankistak behartuta, erregimenak nolabaiteko aldaketa formalak egin behar izan zuen, baina, botere politikoaren, judizialaren, ekonomikoaren, militarraren eta errepresiboa zutabeak mantenduz; horrela, frankismoaren zutabe nagusienak bermatua: Estatuaren batasuna, Kapitalismoaren lehentasuna edozein interes sozialen gainetik eta Elizaren estatus pribilegiatua.

Baina “trantsizio” hartatik hogeita hamabost urte geroago argentinar epaile batek frankismoaren aurkako kereila bat onartu du genozidio eta gizateriaren aurkako delituengatik, preskriba-ezinak eta inongo “azken puntuko legeak” amnistiatzerik ezin dituenak. Nahiz eta erakunde internazionaletik izan, kereila honek frankismoaren zigorgabetasun hormak zartatzen hasia du, mota askotako pertsona eta giza erakunde askok salatu izan duguna. Beraz, une garrantzitsu bat da Egiaren, Justiziaren eta frankismoko ehundaka mila biktimei sortutako kalteak Erreparazioaren aldeko borrokan.

Esandako guztiarengatik, Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak, honako mozio hau aurkezten du:

1.- Eskoriatzako Udalak 1931.ean bide onez burututako Errepublika eta Gobernu Spainol, Katalan, Galego eta Euskaldunaren aurka 1936.eko Uztailaren Francok antolatutako altxamendu militar-faxista kondenatzen du.

2.- Eskoriatzako Udalak gerora ezarritako diktadura erregimena kondenatzen du, berrogei urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuengatik justizia soziala eta eskubide individualak eta kolektiboak aldarrikatzen zutenen aurka.

3.- Eskoriatzako Udalak kolpe militar haren alde eta gerora bere gobernuen alde egir zuten industria, nekazaritza eta finantza oligarkiak eta Elizaren agintari eta partaideak salatzen ditu.

4.- Eskoriatzako Udalak frankismoan errepresaliatutako pertsonen eskubideak eta erreibindikazioak babesten ditu eta Estatuko administrazioei, hau da, erakunde politiko eta judizialei, eskatzen die beharrezko neurriak hartzeko 1936ko altxamendu militarrak, erregimen frankistak eta Estatuko terrorismoak errepresaliatutakoei erregimen harekiko EGIA ezagutzeko eskubidea bermatzeko erregimenaren oinordekoek historia berridazteko egiten ari diren saioei aurre egin ahal izateko; benetako JUSTIZIArako eskubidea bermatzeko gizateriaren aurkako krimenen erantzuleek egun duten zigorgabetasun egoera gainditzeko; eta ERREPARAZIO duin eta diskriminazio gabea jasotzeko eskubidea bermatzeko frankismoko ehundaka mila biktimei egindako lege urraketengatik; eta azkenik, HORRELAKORIK BERRIZ GERTA EZ DADIN, aldaketa soziopolitikoak, juridikoak eta instituzionalak hartzeko gizarteak duen eskubidea bermatzeko.

5.- Ildo honetan, Eskoriatzako Udalak bere babes eta atxikimendua ematen dio Argentinako Errepublikan, Buenos Aireseko 1 Epaitegian, Maria Servini de Cubria Epaileak daraman 4591/10 kereilari frankismoan giza eskubideen aurka egindako genozidioarengatik eta gizateriaren aurkako delituengatik.

6.- Eskoriatzako Udalak hiritar orori eskatzen dio kereila horren alde egir dezak, frankismoko kriemenen aurka, bai kereilataile gisa aurkeztuz errepresioa zuzenean sufritu zutenak frankismo garaian edo bere errepresaliatuaren senide izan; edo baita diktaduraren aurka bere salaketa eginaz eta krimenen eta kriminalen aurkako kereilari atxikimendu pertsonala sinatuz.

Testua irakurri eta hitza eman ondoren, honako hauek hitz egin dute:

Alkate jauna: gu ados gaude eta mozioaren alde egingo dugu.

Cantero jauna: udal talde sozialista abstentitu egin behar da mozio honetan, ez dagoelako ados hitzez hitz azalpen zatiarekin eta ezta xedapen zatiarekin ere. Sozialistok gure babesa eman diogu beti bere garaian Baltasar Garzon epaileak, nazioarteko zuzenbidean oinarrituta, frankismoaren krimenak ikertzeko hasitako ikerketa judizialari. Bere garaian duintasun demokratikoarentzat iraingarritzat jo genuen bezala aipatutako epailea erruztatuen aulkian jarri izana Frankoren jarraitzaile ideologikoek -horien artean, Falange Españolak frankismoko krimenak ikertzeagatik jarritako kereila bategatik Espainiako ultraeskuinak egindako jazarpen kanpaina baten barruan. Sozialistok historiaren ezagutzan eta gerra zibilean eta Frankoren diktaduran hil ziren duintasuna eta memoriaren berreskurapenean, eta baita printzipio demokratikoek defentsan ere, oinarritutako memoria politika bat eraikitzeko ekintzak areagotzearen alde egiten dugu. Eta, horregatik, uste dugu gure zuzenbide estatutak badituela altxamendu militarrak, erregimen frankistak eta estatu terrorismoak errepresaliatutakoek eskubideak bermatzeko aurrekari juridikoan. Esaterako, azaroaren 19ko 2008/2002 dekretua Amnistia buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasungabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoa eta otsailaren 14ko 22/2006 dekretua, askatasun-gabetzea jasandako pertsonei, Langile Soldaduen Diziplina Batailoietan egondakoei barne, konpentsazio ekonomikoak emateko ebazpenak ezartzen dituena, Amnistia buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasungabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzko azaroaren 19ko 280/2002 Dekretuan araututako baldintza eta betebeharrok izan ditzaten, arau honetan aurreikusitako procedura-aldaketak salbu. Baita ere, abenduaren 26ko 52/2007 Legea, zeinaren bidez gerra zibilaren eta diktaduraren garaian jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aitortzen eta zabaltzen eta haien aldeko neurriak ezartzen diren. 2000. urtetik aurrera hasten da agertzen biktimen eskubide inmaterialei buruzko kontzientzia erakundeetan, bereziki, memoriari buruzko eskubidea, eta horri lotuta elkarbizitza eta demokrazia printzipioen garapena. Horrela, ekin zaie Euskadin 2006ko Bake eta Bizikidetza planari, 2007ko Bakean eta Giza Eskubideetan Heztek Euskal Planari, eta 2010eko Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko Planari. Esan daiteke, memoria arloan legegileen eskutik etorri dela memoriararako eskubidea definitzeko eta Memoria Historikoaren Legearren bidez bizikidetza demokratikoa sortzeko oinarrizko elementutzat hartzeko egindako aurrerapena. Lege horretan jasotzen dira biktimek konponketa moralerako duten eskubideak, eta memoriaren berreskurapena eta balore eta printzipio demokratikoak sustatzeko benetako politika publiko bezala definitzen da; horrela, Oroimenaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzea onartu zen Euskadin. Horregatik guztiagatik, errepikatu ezin daitekeen iraganaren memoria berriz ere errebindikatzeko beharrezko ikusten dugu. Eta, horregatik, abstentitu egingo gara mozio honetan, ez gaudelako ados bertan jarritako guztiarekin, uste dugulako gaindituta daudela zenbait salaketa adierazpen, ez direnak beharrezkoak egun bizi garen sistema demokratikoan.

Merino jauna: lege askori buruz hitz egin duzu eta konpentsazio ekonomikoei buruz, eta hemen eskatzen dena JUSTIZIA, EGIA ETA ERREPARAZIOA dira. Gogoratu behar da Memoria Legea, Partido Socialista Obrero Español taldeak onartua, puntu eta amaiera legea dela. Azkenean, ez da justiziari egiten errepresaliaturekin ezta izandako milaka biktimekin ere.

Urrutia jauna: guk alde bozkatu behar dugu.

Hitz egiteko txandak amaituta, bozketa egin da. Mozioa onartu da aldeko 7 botorekin eta 3 abstentziorekin (Madinabeitia jauna, Arkauz andrea eta Cantero jauna).

### **13.- GALDE-ESKEAK.**

**Merino jaunak egindakoak**

1.- Genero indarkeria buruz.

Esan du, egun hauetan Eskoriatzan izandako gertaeren gainean ondorengo adierazpenak egin nahi dituela: (irakurritako testua transkribatzen da).

#### **EZKER ANITZA-IU-k JARRERA GOGORRAGOA ETA ERAGINKOARRAGOA ESKATZEN DU INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN**

**Iaz 49 emakume erahil zituzten Euskadin. 680 emakumetik gora erahilak azken hamarkadan. Gizarte gaitz hori lekua hartzen ari da gure buruetan. Kopuruak beldugarriak dira, baina, ez dute behar besteko gaitzespenetik jasotzen gizartean.**

Albisteek esaten digute 26 urteko emakume bat hil dutela Laudion. Baino, emakume horrek izena du, familia, seme-alaba bat eta bizitza bat zuen. Albisteek diote aurten Estatuan indarkeria matxistaren ondorioz hiltzen duten 24. emakumea dela. Atzo beste bi emakumen izan ziren. Iaz 49 emakume erahil zituzten Euskadin. 680 emakumetik gora erahil dituzte azken hamarkadan. Kopuruak beldugarriak dira, baina, ez dute behar besteko gaitzespenetik jasotzen gizartean.

Ezker Anitza-IU-k salatu zuen berdintasuna Euskadin, PSE-EE-ko aurreko gobernuarentzat eta EAJ-ko oraingo Eusko Jaurlaritzarentzako, besteak beste, berdintasun erakundeak kentzea eta Emakunderen aurrekontua % 20an murriztea dela.

Erantzuna askoz ere argiagoa eta gogorragoa izan behar da, ez baita gertaera isolatua, baizik eta politikatik, eskolatik, komunikabideetatik, ohituretatik, gizartetik eta abarretatik zabaltzen den ideologia patriarkal eta matxistan dituela sustraiak.

Eta, testuinguru horretan, ezer ez egite hori gobernatzeten gaituzten ideologiagatik eta feminizidoaren aurrean duten arduragabekeriagatik azaltzen da.

Ezker Anitza-IU-k ez du uste erahilketa hori eta beste edozein gaitzestea nahikoa denik. Beharrezko da erabateko berdintasunean benetan sinistea, eta hortik, legeak egitea, heztea, prebenitzea eta berdintasuna benetakoia izango den gizarte bat eraikitza, non hilketa matxistek ez duten lekurik izango.

Azken aldi honetan bi eraso matxista izan ditugu gure herrian, kalean: bata, orain dela 20 bat egun, eta bertan Ertzaintzako hainbat patruilak parte hartu behar izan zuten; bestea, orain dela 2 egun gertatutakoa, askoz ere larriagoa izan zen, eta arriskua larrian izan ziren Eskoriatzako herritarra eta biktima bera.

Ezker Anitza-IU-tik galdetzen diogu geure buruari zertarako balio diguten azaroaren 25ero, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunean, aurkezten eta onartzen ditugun adierazpenak edo mozioak

Zertarako balio du XXI. mendeko gaitzetako bati buruzko -zoritzarrez gure herrian ere bizi duguna- berdintasun eta prebentzio planak onartzea?

#### **EZKER ANITZA-IU-Eskoriatzak INDARKEARIA MATXISTAREN AURKAKO JARRERA GOGORRAGO ETA ERAGINKORRAGO BAT ESKATZEN DUGU. ETA, HORREGATIK, UDALBATZAR HONI ESKATZEN DIOGU HORRELAKO GERTAERAK PUBLIKOKI ETA DENOK BATERA GAITZESTEA ESKATZEN DIOGU.**

Eskoriatzan, 2013ko maiatzaren 28an, Ezker Anitza-IU

Merinok egindako eskaerari erantzunez, erabaki da gobernu taldeak deklarazio bat prestatzea, eta taldeen artean adostu ondoren, herritarrei jakinaraztea.

Iregui andreak jakinarazi du udal gizarte zerbitzuek EMAKUNDE eta CLARA CAMPOAMOR bezalako elkarteekin harremanetan jartzeko asmoa dutela horrelako egoeretan nola jokatu jakiteko.

Merino jaunak berriz ere dio horrelako gertaeren aurrean Udalak berehala erantzun behar duela.

### **Urrutia jaunak egindakoak.**

#### 1.- Alkatearen balizko dimisioari buruzko zurrumurruak.

Urrutia jaunak, jakinarazi ondoren kalean Alkateak bere kargua utzi behar duela esaten dela, galdezu du egia den edo ez.

Alkateak erantzun dio ez dela egia.

#### 2.- Zinegotzi berria.

Urrutia jaunak galdezu du noiz hartuko duen kargua.

Alkateak erantzun dio Hauteskunde Batzorde Zentralak zinegotzi kargurako egiaztagiria bidalitakoan hartuko duela kargua.

#### 3.- Posta elektroniko baten titularriari buruzko galdera.

Urrutia jaunak galdezu du nor den korreo elektroniko baten titularra, eta zergatik bidaltzen zaion plenorako deialdia eta dokumentazioa.

Rosa Arkauz zinegotziak esan du bere alabaren helbidea dela, eta alabak ateratzen diola dokumentazioa, berak ez danielako ordenagailua erabiltzen.

#### 4.- Bere garaian egindako bi galdera

Kexu da ez duelako erantzunik jaso bere garaian egindako bi galderetako buruz.

Alkateak esan dio esan zitzaiola Garapen batzordean aztertuko zirela, eta ekainean egingo den batzordean aztertuko direla. Erabaki da idatziz jakinazko zaiola batzordearen erabakia.

#### 5.- Erakunde adierazpenak

Galdezu du ea guztien aldeko bota behar duten. Erantzun zaio horrela erabaki zela udalaren antolaketa erregelemandua aldatu zenean.

#### 6.- TELESKO

Teleskoko kideak izendatu ondoren, hurrengo urratsa zein izango den galdezu du.

Erantzun zaio Batzorderako deialdia egitea izango dela, baina, Eusko Jaurlaritzara egindako kontsulta bati buruzko erantzuna jasotzeko zain daudela.

#### 7.- Joan zen igandean izandako gertaera.

Galdezu du ea badakigun zenbatekoak izan ziren joan zen igandean izando gertaerak sortutako kalte materialak.

Alkateak erantzun dio badakiela atea erre zela, baina, asko gehiago ez; Udalaren kezka egon zitezkeen kalte pertsonalak izan direla.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 21:10ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA  
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGOA-  
REN ARTEKO LANKIDETZA HITZARME-  
NA.**

Donostian, 2013ko apirilaren 30ean

**CONVENIO DE COLABORACIÓN EN-  
TRE LA EXCMA. DIPUTACION FORAL  
DE GIPUZKOA Y EL ILUSTRE COLE-  
GIO DE ABOGADOS DE GIPUZKOA.**

**En San Sebastián, a 30 de abril de 2013**

**ELKARTU DIRA**

Batetik, MARTIN GARITANO LARRAÑAGA jauna, Gipuzkoako diputatu nagusia eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria, Diputatuen Kontseiluaren 2013ko apirilaren 30eko erabakien bidez egintza honetarako berariazko ahalmena duena.

Eta, bestetik, LURDES MAIZTEGUI GONZÁLEZ andrea, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren (IFK: Q-2063001-H; helbidea, Mandasko dukearen pasealekua, 11, behea, Donostia) izenean eta ordezkari gisa.

Parte hartzaleek behar adinako gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri agiri hau sinatzeko, eta, aurrekari moduan,

**SE REUNEN**

De una parte, DON MARTIN GARITANO LARRAÑAGA, en su condición de Diputado General de Gipuzkoa y en representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, facultado expresamente para este acto por acuerdo adoptado por el Consejo de Diputados en sesión celebrada el día 30 de abril de 2013.

Y de otra, DOÑA LURDES MAIZTEGUI GONZÁLEZ, en nombre y representación del Ilustre Colegio de Abogados de Gipuzkoa, (CIF: Q-2063001-H), con domicilio en Paseo Duque de Mandas número 11, bajo, de San Sebastián.

Los intervinientes se reconocen recíprocamente capacidad jurídica suficiente para el otorgamiento del presente documento, y a modo de antecedentes,

**ADIERAZTEN DUTE**

I. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 25. artikuluko 1. atalak honakoa ezartzen du: “*Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere jantziak, biritokia, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako asegurua izateko eskubidea ere*”.

Gaur egun, familiak etxea galtzen ari dira, finantzten eta higiezinen alorreko burbuila lehertu dela-rik eragindako zorpetzearen eraginez. Bere garaian etxebizitzen prezioek izan zuten gorakadak, krisialdiak ekarri duen emplegu suntsipenarekin

**EXPONEN**

I. El apartado 1 del artículo 25 de la Declaración Universal de Derechos Humanos establece que “*toda persona tiene derecho a un nivel de vida adecuado que le asegure, así como a su familia, la salud y el bienestar, y en especial la alimentación, el vestido, la vivienda, la asistencia médica y los servicios sociales necesarios; tiene asimismo derecho a los seguros en caso de desempleo, enfermedad, invalidez, vejez u otros casos de pérdida de sus medios de subsistencia por circunstancias independientes de su voluntad*”.

En la actualidad, las familias están siendo desalojadas de sus viviendas por el endeudamiento sobrevenido tras el estallido de la burbuja financiera e inmobiliaria. El incremento que en su día sufrieron los precios de las vi-

batera, ondorio ekarri du muga-mugako egoeran dauden familiek modurik ez izatea bere oinarrizko beharrak estaltzeko; eta horien artean dago etxebizitzak, bai salmentakoak bai alokairuan direnak, ordaintzea.

Behar besteko diru sarrerarik ez dutelako bere hipoteca-kuotak edo alokairu-errezipoak ordaintzerek ez duten pertsonak etxetik ateratzen dituztela-eta sortzen ari den drama soziala neurri eta dramatismo maila jasanezina ari da hartzen gizarte kontzentzian eta elkarbizitza demokratikoan. Drama pertsonalak eta sozialak onartezinak dira, eta dagoeneko suizidioak, depresio larriak eta egoera honek zuzenean eragiten dien milaka pertsonaren eta senideren gaixotasunak ditugu.

Duela hainbat urte hasita, eta herritarren aldetiko babes zabal-zabal batez, zenbait alderdi politiko, sindikatu, afektatuen plataforma, elkarte eta herritarren mugimendu eskatzen ari dira berehala harria fede oneko zordunak finantza-erakundeen aldetik jasaten ari diren bidegabekeria eta babesik eza zuzentzeko neurriak. Horretarako salaketak egin dituzte, protestak, eta aldaketarako proposamenak.

**II.** Gipuzkoako Foru Aldundiak, jakin badakielarik, zuzenean gainera, Lurralte Historikoko herritarrak arrazoi horien eraginez igarotzen ari diren egoera larria dela, erantzunak eman nahi ditu, zaitasun handi-handiko egoera batean dauden edo bere ohiko etxebizitza galtzera irits daitezkeen pertsona eta familia afektatuak jasaten ari diren zaitasun izugarriak neurri batean arindu ahal izatearen.

**III.** Testuinguru honetan, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak laguntza juridiko integraleko zerbitzua eskaini dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako Lurralte Historikoan bizi diren pertsonen eskubideak babesteko; pertsona horiek **(i)** bere etxebizitza bakarra galtzeko arriskuan egon behar dute; **(ii)** gizarte bazterketaren mugan, diru erreklamazioen ondorioz, horien sorburuan hipoteca bidez bermatutako maileguia egon ala ez egon; eta **(iii)** fede oneko zordunak izan behar dute.

**IV.** Zerbitzu berritzale eta esperimental hori udal mailako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinaturik emateko diseinatu da, hain zuzen zehaztearren programaren onuradun izango diren per-

viendas, unido a la destrucción de empleo producto de la crisis, ha traído como consecuencia que las familias que se encuentran en una situación límite no puedan cubrir sus necesidades más básicas, incluido el pago de sus viviendas, sean estas en venta o alquiler.

El drama social ocasionado por los lanzamientos de sus hogares de personas que no pueden asumir el pago de sus cuotas hipotecarias o recibos de alquiler por falta de ingresos suficientes está alcanzando una dimensión y un dramatismo insoportables para la conciencia social y la convivencia democrática, con dramas personales y sociales inadmisibles, que han llevado a suicidios, graves depresiones y enfermedades de miles de personas directamente afectadas y de sus familiares.

Las denuncias, protestas y propuestas de cambio que desde hace años, y con un amplísimo apoyo de la opinión ciudadana, vienen demandando diversos partidos políticos, sindicatos, plataformas de afectados, asociaciones y movimientos ciudadanos reclaman la adopción urgente de medidas que corrijan las injusticias y la indefensión de los deudores de buena fe frente a las entidades financieras.

**II.** La Diputación Foral de Gipuzkoa, conocedora de primera mano de la delicada situación que por este motivo están atravesando ciudadanos del Territorio Histórico, quiere ofrecer respuestas que puedan paliar en alguna medida las tremendas dificultades por las que están atravesando las personas y familias afectadas que se encuentran en una situación de grave dificultad o que puedan llegar a perder su vivienda habitual.

**III.** En este contexto, el Colegio de Abogados de Gipuzkoa ha ofrecido a la Diputación Foral de Gipuzkoa un servicio de asistencia jurídica integral para la defensa de los derechos de las personas radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa que se encuentren **(i)** en riesgo de pérdida de su única vivienda; **(ii)** en el umbral de exclusión social a consecuencia de reclamaciones dinerarias, derivadas o no de préstamos garantizados con hipoteca; y **(iii)** sean deudores de buena fe.

**IV.** Dicho servicio, innovador y experimental, se ha diseñado para ser prestado en coordinación con los Servicios Sociales de Base, de carácter municipal, a fin de determinar las

tsonak. Beraz, zerbitzua eman ahal izateko zerbitzuari atxiki nahi zaizkion gipuzkoar udalekiko lankidetza beharko da.

Era berean, programa garatzeko unean laguntzeko interesa erakutsi duten hainbat elkartea programari atxikitzeko aukera ere jasotzen da.

Hitzarmen hau presazko izaera egin da, erantzun azkar bat eman nahi baitzaie adierazi diren gizarte egoera larriei, Lurralde Historikoko udal batzuekin harremanetan jarri aurretik. Hartara, tresna ireki bat izango da, aberastu nahi baita Oinarriko Gizarte Zerbitzuek, Jarraipen Behatokia sortu berriaren barruan, egingo dituzten ekarpenekin.

Horrela bada, aldeek hitzematen dute hitzarmenaren oinarri den jarduketa protokoloa moldatuko dutela udalek eta gizarte erakunde interesatuek ematen dituzten zerbitzuen berezitasunetara, berezitasun horien atzematen diren neurrian, nahiz eta egokitzapen horrek ez duten desitxuratuko edo galaraziko helburu eta xeden betekizuna.

Horregatik, aldeek hitzarmen honen berri emango diente bai orokorean gizarteari eta baita Lurralde Historikoko gizarte erakundeei eta udalei ere.

**V.** Bestetik, laguntza juridiko integraleko zerbitzua behar bezala ematearren eta zerbitzuaren edukiaren sensibilitate soziala kontuan harturik, zerbitzua osatzen duten profesionalek oso gaikuntza profesional altaua izan beharko dute. Horregatik, garatu behar den programak profesional horien prestakuntza juridiko eta sozial espezializatua behar du, ezinbestez.

Horregatik, bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren aipatutako lankidetza gauzatzeko, bi erakundeen agiri honetan jasotzen den lankidetza hitzarmena aukeratu dute, jarraian aipatzen diren klausulen arabera.

personas beneficiarias del programa, de manera que para su prestación será preciso contar con la colaboración de los ayuntamientos guipuzcoanos que deseen adherirse.

Asimismo, también se contempla la posible adhesión al programa de diversas asociaciones que han mostrado su interés en colaborar en su ejecución.

Este convenio nace con urgencia para dar una respuesta rápida a las graves situaciones sociales expuestas, previas las debidas tomas de contacto con algunos ayuntamientos del Territorio Histórico, siendo un instrumento abierto, que será enriquecido con las aportaciones de los Servicios Sociales de Base, en el marco del Observatorio de Seguimiento, de nueva creación.

En esa medida, las partes se comprometen a adaptar el protocolo de actuación, base del convenio, a las peculiaridades asistenciales municipales y de las entidades sociales interesadas que se observen, sin que las mismas puedan desvirtuar o hacer imposible el cumplimiento de los objetivos y fines establecidos.

Para ello, las partes darán a conocer el presente convenio ante la sociedad en general, las entidades sociales y los ayuntamientos del Territorio Histórico.

**V.** Por otra parte, en aras a la debida prestación del servicio de asistencia jurídica integral, y a la sensibilidad social de su contenido, los profesionales que integren el servicio deberán tener una alta cualificación profesional, por lo que el programa a desarrollar requiere obligatoriamente la formación jurídica y social especializadas de los mismos.

En consecuencia, con la finalidad de materializar la colaboración expuesta entre ambas entidades, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Colegio de Abogados de Gipuzkoa, éstas han optado en el presente caso por la figura del convenio de colaboración, contenido en el presente documento y que se regirá por las siguientes,

## KLAUSULAK

### **LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA.**

## CLÁUSULAS

### **PRIMERA. OBJETO DEL CONVENIO.**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren arteko lankidetzarako hitzarmena arautzea da hitzarmen honen xedea, hain zuen Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren pertsonen eskubideak babesteko lagunza juridiko integraleko zerbitzua eskaintzearren; pertsona horiek **(i)** bere etxebizitza bakarra galtzeko arriskuan egon behar dute; **(ii)** gizarte bazterketaren mugan, diru erreklamazioen ondorioz, horien sorburuan hipoteka bidez bermututako maileguaren ala ez egon; eta **(iii)** fede oneko zordunak izan behar dute.

#### ***BIGARRENA. LAGUNTZA JURIDIKORAKO ZERBITZUAREN JARDUERA PROTOKOLOA.***

Hitzarmen honen xede den aholkularitza juridikorako zerbitzua emateko, jarraitu egingo da ondoren deskribatzen den Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren Laguntza Juridikoko Zerbitzuaren Jarduera Protokoloa:

##### **1. Aldez aurretik:**

- 1.1.** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen aurrean, gizarte langileek lehen lagunza emango diote gizarte lagunza eskatzen duen pertsonari; lagunza eskaera hori adierazpen hutsez egina izan daiteke, edo hainbat dokumentazio aurkeztuz agerian utzia.
- 1.2.** Lagunza horretan sartuko dira pertsonari ematen zaion arreta eta egiten zaion elkarrizketa, eta horretarako elementuak honakoak izango dira: galdelegi bat, elkarbizitzza-unitateko kideen ebaluazioa, ondare egoeraren eta egoera ekonomiko eta finantzarioaren azterketa, eta gizarte laguntzen pertsona onuraduna den ala ez zehaztea. Eta, amaitzeko, ziurtagiri bat emango da, pertsona hori kide den unitateak duen arriskuari buruz, berariaz erasota lagaz jasotzen dituen edo onartu zaizkion gizarte laguntzak. Lagunza honek gehienez zazpi eguneko epea hartu ahal izango du.
- 1.3.** Ondare egoera eta ekonomiko eta finantzarioa ebaluatzearen, lagunza eskatzen duen pertsonak hainbat dokumentu aurkeztu beharko ditu, gutxienez honakoak:

- a) Etxebizitzaren salerosketa-eskrituraren lehen kopia edo kopia baimendua, hipoteka-bermea duen maileguaren eskritu-

El presente convenio tiene por objeto la regulación del régimen de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Colegio de Abogados de Gipuzkoa para la prestación de asesoramiento jurídico a las personas que, radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, se encuentren **(i)** en riesgo de pérdida de su única vivienda; **(ii)** en el umbral de exclusión social a consecuencia de reclamaciones dinerarias, derivadas o no de préstamos garantizados con hipoteca; y **(iii)** sean deudores de buena fe.

#### ***SEGUNDA. PROTOCOLO DE ACTUACIÓN DEL SERVICIO DE ASISTENCIA JURÍDICA.***

Para la prestación del servicio de asesoramiento jurídico objeto del presente convenio, se seguirá el Protocolo de Actuación del Servicio de Asistencia Jurídica del Colegio de Abogados de Gipuzkoa que a continuación se describe:

##### **1. Con carácter previo:**

- 1.1.** Ante los Servicios Sociales de Base los trabajadores y trabajadoras sociales prestarán la primera asistencia a la persona que demande, sea por su sola manifestación, o por el examen de la documentación que entregue, la asistencia social.
- 1.2.** Comprenderá su atención y entrevista personal, con la confección de un cuestionario, evaluación de los miembros de la unidad de convivencia, examen de su situación patrimonial y económico-financiera, su condición o no de persona beneficiaria de ayudas sociales, y concluirá, en su caso, con la expedición de un certificado que acredite el riesgo de la unidad en la que se integra, en el que además se hará expresa constancia de las ayudas sociales que percibe o de las que se le reconoczan. Esta asistencia no podrá superar el plazo de siete días.
- 1.3.** A los efectos de evaluación de la situación patrimonial y económico-financiera, la persona solicitante de asistencia aportará, al menos, la siguiente documentación:
  - a) Primera copia o copia autorizada de la escritura de compraventa de la vivienda, de la escritura de préstamo

rarena, eta egungo egoera frogatzeko ondorengo dokumentu hauek:

- Maileguaren azken hileko kuotaren kopia.
- Hipoteca amortizatzeko falta den epea.
- Azken ordainagiri ordaindua.
- Hartzekodunarengandik jasotako azken gutuna.
- Finantza-erakundearen demandarik baldin badago, horren fotokopia.
- Jabekidetza egoera baldin bada eta elkarbizitzarik ez badago banantze egoera bat dagoelako, banantze edo dibortzio epaia (erregulazio hitzarmena elkarrekoiko adostasunik izanez gero), etxebizitzaren erabilera eta ordainketa baldintzak zehazten dituena.
- Jabe, abal-emaile, berme-emaile edo hipoteca-emaile ez zordun bat baino gehiago baldin badago, pertsona horien guztien identifikazio datuak eta laguntza juridikoa edo bigarren laguntza eskatzeko baimenak.

**b)** Nortasun Agiri Nazionala eta familia-liburua.

**c)** Enplegu Institutu Nazionalaren (INEM) ziurtagiria, langabezia egoeran baldin badago.

**d)** Famili unitateko kide guztien sarreren frogagiria, azken 6 hilabetei dagokiena: empresas emandako hileko sarrera gordinei buruzko ziurtagiria edo azken 6 nominak, Pertsona Fisikoen Errentaren gainerako Zergako hiruhileko azken 2 ordainketak edo Balio Erantsiaren gainerako Zergarenak autonomoen kasuan, pentsiokrantzari buruzko ziurtagiriak.

**e)** Diru sarreren iturria zehaztea: lana, Gizarteratzeko Gutxienekeko Diru-sarrerako (GGD) aldi baterako prestazioa, pentsioak, konpentsazio pentsioak, elikadura-pentsioak, bestelakoak.

con garantía hipotecaria y la siguiente documentación acreditativa de su situación actualizada:

- Copia de la última cuota mensual del préstamo.
- Período pendiente para la amortización de la hipoteca.
- Último recibo pagado.
- Última carta recibida del acreedor.
- En caso que exista una demanda por parte de la entidad financiera, fotocopia de la misma.
- Si la situación es de copropiedad y no se convive por tratarse de una separación, sentencia de separación o divorcio (con convenio regulador en caso de mutuo acuerdo) donde se concreten las condiciones del uso y pago de la vivienda.
- Si se trata de más de un propietario o propietaria, avalista, garante, o hipotecante no deudor, los datos de identificación personal y autorización de todas estas personas para solicitar la asistencia jurídica o segunda asistencia.

**b)** Documento Nacional de Identidad y libro de familia.

**c)** Certificado del Instituto Nacional de Empleo si se está en situación de paro.

**d)** Justificante de ingresos de todos los miembros de la unidad familiar durante los últimos 6 meses: certificado de ingresos brutos mensuales emitido por la empresa o 6 últimas nóminas, 2 últimos pagos trimestrales de Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o del Impuesto sobre el Valor Añadido para autónomos, certificado de cobro de pensiones.

**e)** Concreción de la fuente de ingresos: por trabajo, por prestación temporal de la Renta Mínima de Inserción (RMI), pensiones, pensiones compensatorias, pensiones alimenticias, otras.

f) Errolda ziurtagiria, eta elkarbizitza ziurtagiria, dagokion udalak emana.

**2. Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren Laguntza Juridikorako Zerbitzuaren esku-hartzea:**

**2.1.** Kasuan kasuko udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak idatziz, baliabide eletronikoz, emango dio aditzera laguntza juridikorako eskaera Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren Idazkaritzari, laguntza horren onuradunari esleitutako gizarte langilearen identitatearekin batera.

Exekuzio Zibiletarako Laguntza Juridikorako Zerbitzuko Lantaluek eskaera ebaluatuko du eta, hala badagokio, Abokatuen Elkargoko Idazkaritzak abokatu bat izendatuko du, Zerbitzuari atxikita dauden artean, eta abokatu izendatuarri izendapenaren berri emango dio. Izendapen honen berri emango zaie, orobat, Lantalueari eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari; azken honek, ostean, pertsona onuradunari emango dio aditzera.

Laguntza juridikoaren pertsona onuradunak 48 orduko epea izango du, gehienez ere, izendapena jakinarazten diotenetik hasita, izendatutako abokatuarekin harremanetan jartzeko.

Lehenbiziko elkarritzeta izendatutako gizarte langileak bere jarduera garatzen duen lekuaren egin ahal izango da.

**2.2.** Izendatutako abokatuak lehen laguntzaren espedientearen kopia osoa jasoko du, ebalatzeko, gehienez ere 48 orduko epean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita.

**2.3.** Izendatutako abokatuak higiezinen jabetzako agente baten tasazio lana behar badu, edota auzitegi-peritu ekonomista bat izendatzea, Ekonomisten Euskal Elkargoaren Peritu Jardueren zerrendakoa, izendatutako gizarte langileari emango dio aditzera, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren Idazkaritzaren bidez, hain zuzen beharrezkoa den hori eska dezan.

f) Certificado de empadronamiento, y certificado de convivencia del correspondiente ayuntamiento.

**2. Intervención del Servicio de Asistencia Jurídica del Colegio de Abogados de Gipuzkoa:**

**2.1.** Por el Servicio Social de Base del correspondiente ayuntamiento se comunicará por escrito, electrónicamente, a la Secretaría del Colegio de Abogados de Gipuzkoa la solicitud de asistencia jurídica, y la identidad del trabajador o trabajadora social asignado a la persona beneficiaria de la misma.

Dicha solicitud será evaluada por el Grupo de Trabajo del Servicio de Asistencia Jurídica de Ejecuciones Civiles, en cuyo caso la Secretaría del Colegio de Abogados procederá a la designación de un abogado o abogada de entre los adscritos al Servicio, comunicándolo al abogado o abogada nombrado, dándose cuenta de ella al Grupo de Trabajo y comunicándolo al Servicio Social de Base, quien a su vez lo comunicará a la persona beneficiaria.

La persona beneficiaria de la asistencia jurídica deberá contactar con el abogado o abogada designado en el plazo máximo de 48 horas desde que se le comunique la designación.

La primera entrevista podrá celebrarse donde desarrolle su actividad el trabajador o trabajadora social asignado.

**2.2.** El abogado o abogada designado recibirá una copia íntegra y completa del expediente de la primera asistencia, para su evaluación, en el plazo máximo de 48 horas, desde la recepción de la comunicación en el Servicio Social de Base.

**2.3.** En el caso de que el abogado o abogada designado precise la intervención tasadora de un agente de la propiedad inmobiliaria, y/o el nombramiento de un perito economista forense, de la lista de Actuaciones Periciales del Colegio de Economistas del País Vasco, así lo hará saber al trabajador o trabajadora social designado, a través de la Secretaría del Colegio de

- Abogados de Gipuzkoa, para que insiste lo solicitado.
- 2.4.** Esku-hartze juridikoa hasirik abokatuaren iritziz ezinezkoa bada onuradunarentzako bidezko akordiorik, exekuzioaren ordezkorik, lortzaa hartzekodunarekin, eta ondorioz esku-hartze juridikoari amaiera jarri behar bazaio, garatutako jarduera profesionalari buruzko txostena eman beharko dio, sortutako zaitasunei buruzkoa bezalaxe, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren Idazkaritzari; honek, hurrena, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuari emango dio aditzena.
- 2.5.** Esku-hartze juridikoa hasi delarik, izendatutako abokatuaren iritziz amaiera jarri behar bazaio procedura judicial bat abian delako, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren Idazkaritzari eman beharko dio aditzena, Orientazio Juridikoko Zerbitzuari helarazteko eta bera ofizioko letrada izenda dezaten, bai dagokion aurkakotzarako bai demanda formulatzeko, mailegu-kontratuaren klausula bat edo gehiago abusuzkotzat deklaratzea eskatzearen. Eta horren guztien berri emango dio Oinarritzko Gizarte Zerbitzuari. Une horretatik aurrera, ofizioso txandaren arauak beteko dira, eduki ekonomikoei dagokienez.
- 2.6.** Ofizioso letrada izendatzen duten Laguntza Juridikoko Zerbitzuko abokatuari dagokio Doako Justiziako expedientearen eskaera izapideztea, zerbitzuaren onuradunak aurrez sinatura, behar den dokumentazioarekin. Esakera hori ematea dagokio zerbitzuaren onuradunari, edo zerbitzuko expedienterako izendatutako gizarte langileri, eta horren bilakaeraren berri emango die bai abokatuari bai onuradunari bai expedienterako izendatutako gizarte langileari.
- 2.4.** Si, iniciada la intervención jurídica ésta debe concluir, a juicio del abogado o abogada designado por imposibilidad en alcanzar un acuerdo con el acreedor, suficientemente justo para la persona beneficiaria, sustitutorio de la ejecución, deberá emitir informe de la actuación o actuaciones profesionales llevadas a cabo, así como sobre las dificultades encontradas, a la Secretaría del Colegio de Abogados de Gipuzkoa, quien dará cuenta al Servicio Social de Base.
- 2.5.** Si, iniciada la intervención jurídica, ésta debe concluir, a juicio del abogado o abogada designado por existir un procedimiento judicial iniciado, deberá hacerlo saber a la Secretaría del Colegio de Abogados de Gipuzkoa para su traslado al Servicio de Orientación Jurídica, para su designación como Letrado o Letrada de Oficio, sea para la oposición que proceda y/o para la formulación de demanda en solicitud de declaración como abusivas de una o más cláusulas del contrato de préstamo, dando cuenta de ello al Servicio Social de Base. A partir de ese momento regirán las normas del Turno de Oficio en cuanto a sus contenidos económicos.
- 2.6.** El abogado o abogada del Servicio de Asistencia Jurídica que fuera designado como Letrado o Letrada de Oficio velará por la tramitación de la solicitud del Beneficio de Justicia Gratuita, previamente suscrito por la persona beneficiaria del Servicio, con la documentación que se requiera, cuya entrega corresponderá a esta persona beneficiaria, o al trabajador o trabajadora social asignado al expediente del servicio, de cuyo devenir dará cuenta el abogado o abogada, a la persona beneficiaria y al trabajador o trabajadora.

### ***HIRUGARRENA. PRESTAKUNTZA.***

- 3.1.** Laguntza juridiko integraleko zerbitzua behar bezala ematearen eta zerbitzuaren edukiaren sensibilitate soziala kontuan harturik, zerbitzua osatzen duten profesionalek oso gaikuntza profesional alta izan beharko dute. Horregatik, garatu

### ***TERCERA. FORMACIÓN.***

